



Eusko Jurlaritzaren  
Informatika Elkarte

Sociedad Informática  
del Gobierno Vasco

# Zerbitzu-katalogoa

3.8.8 bertsioa

2024(e)ko martxoaren 1a

Dokumentu hau EJIE - Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartearen jabetzakoa da, eta **KONFIDENTZIALA** da. EJIEk idatzizko baimenik eman ezean, dokumentu hau ezin da kopiatu –ez osorik ez zatika–, ez beste batzuei erakutsi, edo beste helburu batzuetarako erabili, ez bada berau sortuta bete nahi ziren helburuetarako. Kontratu baten ondorioz emanez gero, kontratuan espresuki baimenduta dagoen horretarako erabili beharko da, eta ez beste ezertarako. EJIEk ez du erantzukizunik izango baldin eta akatsik edo hutsunerik gertatzen bada dokumentua editatzean.

Bertsioa	Data	Aldaketen laburpena	Egilea:	Nork onartua:
<2.2		ITIL programaren lan-bertsioak		
2.2	2011/01/10	SGQn 2011/5/25ean integratutako bertsioa	A. Landa	I. Gurpegui
3.0	2012/12/12	Lehen bertsioa UNE 93200:2008 eta ISO 20000-1 arauetan ezarritako betekizunen arabera berrikusi da SGQn.	A. Ares	I. Gurpegui
3.1	2013/04/15	Zerbitzu-arduradunen eguneraketa Zerbitzu mailako akordioak (ANS) Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren Zuzendaritzak egindako berrikusketaren arabera eguneratzea. Ustiapen-zerbitzuan «saileko brontzea» tipologia ezabatzea.	A. Ares	A. Elizegi
3.2	2013/05/15	Prestakuntza-zerbitzua laguntza teknikoko zerbitzuan integratzea.	A. Ares	A. Elizegi
3.3	2014/02/25	Ezarpen-zerbitzua neurria egindako zerbitzu gisa integratzea. Zerbitzu mailako akordioak (ANS) eguneratzea.	A. Ares	A. Etxeberria
3.4	2015/03/17	Administrazio-kontseiluak laguntza teknikoko zerbitzurako ezarritako fakturazio-baldintzen azalpena.	A. Landa	A. Etxeberria
3.5	2016/06/07	Zerbitzuetako arduraduna berriz izendatzea, Proiektuetako eta Laguntza Teknikoa emateko arloko zuzendaria aldatu delako. 2016an postontziaren tamaina aldatzea “erabiltzaile postua” zerbitzuan. “Neurria egindako zerbitzuak” fitxaren deskribapenean hutsen zuzenketa egitea.	A. Landa	A. Etxeberria
3.6	2017/02/21	Proiektuetako eta Laguntza Teknikoa emateko arloko zerbitzu-arduraduna berriz izendatzea. Zerbitzu mailako akordioak errealitatera egokitzea, sistema informatikoa aldatu ostean.	A. Landa	A. Etxeberria
3.7	2018/03/27	Aurreko produkzio arloko eta euskarri eta telekomunikazioen arloetako zerbitzuetako arduradunak berriz izendatzea. Zerbitzu-katalogoa generoaren ikuspegitik aztertzea.	A. Landa	A. Etxeberria
3.8	2019/07/19	Komunikazio mugikorren zerbitzua gehitzea.	E. Iglesias	A. Etxeberria
3.8.1	2019/11/27	Erabiltzaile postua zerbitzuaren eta euskarazko bertsioaren zerbitzu mailako akordioa aldatzea.	E. Iglesias	Zuzendaritza-batzordea
3.8.2	2021/02/01	IaaS, Hosting-a, Elkarlan, IP telefonia zerbitzuak gehitzea.	A. Aletxa	A. Etxeberria
3.8.3	2022/01/26	IaaS, Hosting-a, Elkarlan, IP telefonia eta komunikazio mugikorren zerbitzuetako arduradunak berresleitzea	A. Aletxa	A. Etxeberria
3.8.4	2022/02/26	Zerbitzu berriak sartzea: Housing-a Biltegiatzea WAN azpiegitura pasiboa SMS kudeatua Nabigazioa Bideokonferentzia zerbitzua LAN eta Wifi konektibitatearen kudeaketa Mahaigain birtualeko zerbitzua (Lekuona) Inprimaketaren kudeaketa Segurtasun Eragiketen Zentroa	A. Aletxa	A. Etxeberria

Bertsioa	Data	Aldaketen laburpena	Egilea:	Nork onartua:
		Big Data plataformako zerbitzuak Ostalari-zerbitzuen, ustiapen-zerbitzuen eta erretiroan dauden zerbitzuen sailkapena.		
3.8.5	2022/12/27	Erlazionatutako dokumentuen bertsioa eguneratzea. WAN azpiegitura pasiboko zerbitzuaren izena aldatu eta WAN konektagarritasun jarri. Erabiltzaile-postuko eta erabiltzaileei arreta emateko zerbitzuak sailkatzea, erretiroko zerbitzu gisa. Zerbitzu berriak sartzea: Backup Zaintza Urruneko konexio segurua Kudeatutako lanpostua	A. Aletxa	A. Saez de Vicuña
3.8.6	13/03/2023	Zerbitzuetarako ANSak argitaratzea: Ahotsa Komunikazio mugikorrak IaaS Hosting Elkarlan	A. Aletxa	A. Saez de Vicuña
3.8.7	27/07/2023	Hosting zerbitzua aldatzea, plataformen eta produktuen irismena barne Komunikazio mugikorreko zerbitzuen arduraduna berresleitzea Ahots-zerbitzuan, sartu tipologia Telefonía sare publikorako sarbidea	A. Aletxa	A. Saez de Vicuña
3.8.8	01/03/2024	Erretiroan dauden zerbitzuak katalogotik kendu dira: Ustiapena Aterpetxeak Erabiltzaile-postua Erabiltzaileentzako arreta Erabiltzaileen zerbitzu-linea sartzea ANS berriak sartzea Informazioaren segurtasunaren atala txertatzea eta ENS betetzea	A. Aletxa	A. Saez de Vicuña

## Aurkibidea

<b>1</b>	<b>Sarrera</b> .....	<b>6</b>
1.1	Xedea .....	6
1.2	Dokumentuaren edukia .....	6
1.3	Zerikusia duten dokumentuak .....	6
1.4	Glosarioa .....	6
<b>2</b>	<b>Zerbitzu-katalogoa</b> .....	<b>8</b>
2.1	Katalogoaren helburuak .....	8
2.2	Katalogoko zerbitzuak .....	8
2.3	Katalogoa mantentzea .....	8
<b>3</b>	<b>Bezero diren erakundeen eskubideak eta betebeharrak</b> .....	<b>10</b>
3.1	Bezeroen eskubideak .....	10
3.2	Bezeroen betebeharrak .....	10
3.3	Araudia .....	10
3.4	Zerbitzuari buruzko erreklamazioen tratamendua .....	11
3.5	Parte hartzeko moduak .....	11
3.6	Zerbitzuaren konpromisoak eta kalitatea .....	11
<b>4</b>	<b>Zerbitzu-lerroak</b> .....	<b>12</b>
4.1	Laguntza teknikoa eta aholkularitza .....	12
4.2	Komunikazioak .....	12
4.3	Azpiegiturak .....	13
4.4	Proiektuak .....	14
4.5	Lanpostua .....	15
4.6	Zerbitzu korporatibo bateratuak .....	15
4.7	Erabiltzaileak .....	16
4.8	Bestelako zerbitzuak .....	16
<b>5</b>	<b>Zerbitzu-fitxak</b> .....	<b>17</b>
5.1	Laguntza teknikoa eta aholkularitza .....	18
	Laguntza teknikoa .....	18
	Aholkularitza .....	19
5.2	Komunikazioak .....	20
	WAN konektagarritasuna .....	20
	SMS kudeatua .....	21
	Ahotsa .....	22
	Komunikazio mugikorak .....	24
	Nabigazioa .....	25
	Bideokonferentzia zerbitzua .....	28
	LAN eta Wifi konektibitatearen kudeaketa .....	30
	Urruneko konexio segurua .....	31
5.3	Azpiegiturak .....	32
	Housing-a .....	32
	IaaS .....	33
	Backup Zaintza .....	35

	Biltegitratzea (STaaS) .....	37
	Hostinga .....	39
5.4	Proiektuak .....	47
	Aplikazioak garatzea .....	47
	Aplikazioen mantentze-lanak .....	48
	Proiektu teknologikoak .....	49
5.5	Lanpostua.....	50
	Mahaigain birtualeko zerbitzua (Lekuona) .....	50
	Inprimaketaren kudeaketa .....	51
	Kudeatutako lanpostua.....	53
5.6	Zerbitzu korporatibo bateratuak .....	54
	Lankidetzeta eta komunikazio zerbitzuak (Elkarlan) .....	54
	Segurtasun Eragiketen Zentroaren zerbitzua .....	57
	BDaaS plataforma - BigData zerbitzu gisa.....	59
5.7	Erabiltzaileak.....	61
	Identitateen eta sarbideen kudeaketa (IAM) .....	61
	Erabiltzaileentzako arreta .....	63
5.8	Bestelako zerbitzuak.....	65
	Neurrira eginiko zerbitzuak.....	65
<b>6</b>	<b>Zerbitzu-mailako akordioak .....</b>	<b>66</b>
6.1	Laguntza teknikoa eta aholkularitza .....	66
6.2	Komunikazioak .....	66
6.3	Azpiegiturak .....	67
6.4	Proiektuak .....	67
6.5	Lanpostua.....	68
6.6	Zerbitzu korporatibo bateratuak .....	68
6.7	Erabiltzaileak.....	68
6.8	Bestelako zerbitzuak.....	68
<b>7</b>	<b>Informazioaren segurtasuna eta Segurtasunaren Eskema Nazionala betetzea .....</b>	<b>69</b>

# 1 Sarrera

## 1.1 Xedea

**Zerbitzu-katalogoaren** helburu nagusia da interesa duten guztiei EJIEk bere bezero diren erakundeei eskaintzen dizkien zerbitzuei buruzko ikuspegi komun bat ematea, bai zerbitzu tradizionalei buruz, bai konbergentzia-zerbitzu berriei buruz.

## 1.2 Dokumentuaren edukia

Sarrerako kapitulu honetaz gain, zerbitzu-katalogoak honako eduki hauek ditu:

- Zerbitzu-katalogoaren deskribapena;
- Zerbitzu-lerro bakoitzaren eta lerro bakoitzean jasotako zerbitzuen definizioa;
- Fitxa-multzo bat, non katalogoko zerbitzu bakoitzaren definizioa, ezaugarri nagusiak eta tipologia jasotzen baitira; eta
- Zerbitzu mailako akordio estandarrak.

## 1.3 Zerikusia duten dokumentuak

Kalitate-arduradunaren bidez lokaliza daitezkeen dokumentuak:

- Kalitate-eskuliburua.
- Kalitatea kudeatzeko sistemak. Betekizunak (UNE-EN ISO 9001:2008).
- Informazio-teknologia. Zerbitzua Kudeatzeko Sistema (SKS). 1. zatia: Betekizunak (UNE ISO/IEC 20000-1:2011)
- Zerbitzu-kartak. Betekizunak (ISO 93200:2008).

Legegintzako dokumentuak:

- 35/1997 Dekretua, otsailaren 18koa, Informazio- eta telekomunikazio-sistemen egitekoak eta kudeaketa-modalitateen planifikazioa, eraketa eta banaketa arautzen dituena.
- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa.
- 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
- 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen araudia onartzen duena.
- 94/2009 Dekretua, apirilaren 21ekoa, otsailaren 18ko 35/1997 Dekretua, Informazio- eta telekomunikazio-sistemen egitekoak eta kudeaketa-modalitateen planifikazioa, eraketa eta banaketa arautzeari buruzkoa aldatzen duena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- 2/2011 Legearen 56. xedapena. 2/2011 Legea, martxoaren 4koa, Ekonomia Jasangarriari buruzkoa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa aldatzen duena.
- 3/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duena

## 1.4 Glosarioa

**Zuzenketa-ekintza.** Atzemandako adostasun-ezaren edo nahi ez den egoera baten jatorria ezabatzeko edo berriz gertatzeko probabilitatea murrizteko egindako ekintza.

**Prebentzio-ekintza.** Adostasun-eza izan daitekeena edo izan nahi ez den egoera baten jatorria saihesteko edo ezabatzeko burututako ekintza.

**Zerbitzu mailako akordioa (ANS edo SLA):** Bezero diren erakundeen eta EJIEn arteko akordioa zerbitzu bat eman eta jasotzeko, EJIek prestazioaren zati gisa bete behar dituen gutxieneko kalitate-mailak jasotzen dituen.

**Kalitatea.** Berezko ezaugarri multzo batek betekizunak zenbateraino betetzen dituen.

**Bezeroa:** Bezeroa: zerbitzu berri bat eskatzeko prozedura edo zerbitzua ematearekin lotutako edozein prozedura (enkargua, hitzarmena, gomendioa, aldaketa, jarraipena, ezereztea etab.) hasteko gaitasuna duen organoa edo erakundea. Erabiltzaileek bezala, EJIeko unitateek ere bezero gisa jardun dezakete katalogoko zerbitzu jakin batzuetan, kontratatu egin baititzakete beren jarduerak egiteko.

**Zerbitzuaren jarraipena.** Zerbitzuan eragin larria izan dezaketen arriskuak eta gertaerak kudeatzeko gaitasuna, zerbitzuak adostuta bezala eman ahal izaten jarraitzeko.

**Zerbitzuaren erabilgarritasuna.** Zerbitzu batek edo zerbitzu baten osagai batek adostutako une batean edo adostutako aldi batean bere funtzioa betetzeko duen gaitasuna.

**Zerbitzu-lerroa:** Alderdi komunak dituzten edo jarduera-eremu berekoak diren katalogoko zerbitzuen multzo logikoa.

**Etengabeko hobekuntza.** Zerbitzuaren eskakizunak betetzeko gaitasuna handitzeko balio duen jarduera errepikakorra.

**Adostasun-eza.** Betekizun bat ez betetzea.

**Prozesua.** Elkarrekin erlazionatutako edo elkarri eragiten dioten jardueren multzoa, sarrera-elementuak emaitza bihurtzen dituen.

**Produktua.** Prozesu baten emaitza.

**Prozedura.** Jarduera edo prozesu bat gauzatzeko modu espezifikoa.

**Eskakizuna.** Ezarritako beharra edo aukera, normalean inplizitua edo nahitaezkoa.

**Zerbitzuko arduraduna:** Bezeroei zuzenean eskaintzen zaien katalogoan jasotako zerbitzu baten erantzukizunaren irudi nagusia. Zerbitzuari buruzko ikuspegi globala du, horiek jasaten dituzten azpiegiturako prozesuak eta taldeak eta zerbitzuak jasotzen dituzten bezeroak kontuan hartuta.

**Bezereen asebetetzea.** Bezeroak bere eskakizunen betetze-mailari buruz duen pertzepzioa.

**Informazioaren segurtasuna.** Informazioaren konfidentzialtasuna, osotasuna eta irisgarritasuna zaintzea. Gainera, beste ezaugarri batzuk ere egon daitezke tartean, hala nola benetakotasuna, erantzukizuna, ez arbuiatzea eta fidagarritasuna.

**Zerbitzua:** EJIek eskaintzen dituen jarduera eta baliabide multzoa; konbinazio horrek baliozko produktu bat ematen du, zeinak bezeroen beharrak asetzen baititu haiek egiten dituzten jarduerak kontuan hartuta.

**Kalitatea kudeatzeko sistema.** Kalitatea kudeatzeko sistema: elkarrekin erlazionatutako elementuen multzoa da, zeinak elkarri eragiten baitiote kalitate-politika eta -helburuak ezartzeko eta helburu horiek lortzeko.

**Zerbitzuaren tipologia:** Katalogoko zerbitzu bat balio zehatzagoa duen "elementu" gisa bereiztea, zerbitzua hobeto ulertzeko eta errazago kontratatzeko. Zerbitzu-tipologia batek dagokion zerbitzuaren ezaugarri guztiak hartzen ditu, eta alderdi edo konpromiso espezifiko berriak har ditzake edo elkarren arteko ezaugarri bereizgarriak izan, baina eremu berekoak.

**Erabiltzailea:** EJIek ematen duen zerbitzua eguneroko jardueretan erabiltzen duten pertsonak. Erabiltzailea EJIetik kanpoko edo EJIekoa izan daiteke; izan ere, zerbitzu jakin batzuetarako, EJIeko langileak ere erabiltzaile izan daitezke.

## 2 Zerbitzu-katalogoa

### 2.1 Katalogoaren helburuak

Katalogoak zerbitzu bakoitzaren deskribapena egiten du, zerbitzu horien ezaugarri nagusiak eta zerbitzua ondo hornitzen eta garatzen dela bermatzen duten arduradunen izenak barne.

Katalogoaren helburu nagusiak dira:

- Bezeroekin harremanak formalizatzea, harremanetarako baliabide bakarraren bidez, ulermena hobetuz.
- Bezero diren erakundeei eta erabiltzaileei jasotzen dituzten zerbitzuen ikusgaitasun, gardentasun eta informazio gehiago eskaintzea.
- EJIEk eskaintzen dituen zerbitzuekin erlazionatutako akordioetan oinarritutako kalitate-eredu bat ezartzea.
- EJIE etengabe bezeroen beharretara moldatzen laguntzea baliabide malgu baten bidez, zeinak, aldi berean, zerbitzuak gehitu, aldatu edo kentzeko aukera emango baitu modu kontrolatuan.
- Katalogoak EJIEren barne ekimenak, martxan daudenak zein etorkizunekoak, lerrokatzeko erreferentziazko oinarritzko baliabide izateko balio izatea.

### 2.2 Katalogoko zerbitzuak

Zerbitzu hitzaren definizio honetan oinarriturik garatu da katalogoa:

*EJIEk eskaintzen dituen jarduera eta baliabide multzoa; konbinazio horrek baliozko produktu bat ematen du, zeinak bezeroen beharrak asetzen baititu haiek egiten dituzten negozio-prozesuak kontuan hartuta.*

Zerbitzu batek bezero batentzat duen balioa bi faktoreren arabera da, batik bat:

- **Baliagarritasuna:** zerbitzu bat baliagarria izango da hura kontratatzen duten bezeroen beharrei modu egokian erantzuten dienean.
- **Bermea:** aurreko faktorea gorabehera, fidagarritasun-alderdiak (erabilgarritasuna, gaitasuna, jarraipena eta segurtasuna) ezinbestekoak dira bezeroek eta erabiltzaileek, beren eguneroko jardueretan, zerbitzua behar dutenean erabil dezaten.

Bi faktore horiek aintzat hartuta, katalogoko zerbitzu bakoitzak bere funtzionaltasuna definitzen duten ezaugarri zehatzak ditu eta EJIEk zerbitzua ematen den bitartean bete nahi dituen kalitate-mailak ezartzen dituzten konpromisoak.

Gainera, honako ezaugarri hauek ere hartzen dira kontuan:

- Zerbitzu bakoitza unitate bat da; beraz, banan-banan eska, alda, segi eta ezeztatu daitezke.
- Zerbitzua hizkera ulergarrian adierazita dago, hura kontratatzen duten bezeroek uler dezaten, eta adierazgarria da, erabiltzaileek egiten dituzten jardueren arabera.
- Zerbitzua bezeroaren beharretara molda eta pertsonaliza daiteke, zerbitzuan aurretik definituta dauden aukerak erabiltzen diren kontuan hartuta.
- Zerbitzuak kalitate-adierazle eta -konpromisoak ditu, zerbitzuaren jarduera orokorrean ezagutu ahal izateko.
- Katalogoko zerbitzu bat emateko, EJIEk eta bezero den erakundeak agiri bidez formalizatutako akordio bakoitza zerbitzu-instantzia bat da.
- Zerbitzu-instantzien kostua modu independentean kalkula daiteke.

### 2.3 Katalogoa mantentzea

EJIEren Zuzendaritza Batzordeak katalogoko zerbitzuetara eramaten ditu erakundearen helburu estrategikoak eta bezeroen beharrak, eta zerbitzu eta negozio-abagune berriak identifikatzen aktiboki parte hartzen du, zerbitzuen arduradunekin batera.



Zerbitzuaren arduradunak etengabe ebaluatzen du katalogoan definitutako zerbitzuen egokitasuna. Izan ere:

- Zerbitzuaren ikuspegi orokor bat dauka, daukan funtzionaltasunari (baliagarritasuna) eta eskaintzaren kalitate-terminoei (bermea) dagokienez.
- EJI Eren prozesuak, laguntzako azpiegitura-taldeak eta bezeroak ezagutzen ditu.
- Zerbitzua kudeatzen eta ikuskatzen du.
- Esleitutako zerbitzu mailako akordioen definizioan parte hartzen du.

Zuzendaritza Batzordeak urtean behin berrikusten du, gutxienez, katalogoa, hala badagokio, antzemandako behar berriei egokitzeko.

Katalogoa kalitatea kudeatzeko sisteman txertatu da. Horrela, katalogoak arlo honetako erakundearen erreferentzia-arauak betetzen dituela bermatzen da eta katalogoan bildutako informazioak fideltasunez islatzen dituela eskainitako zerbitzuak.

## 3 Bezero diren erakundeen eskubideak eta betebeharrak

Katalogo honetako EJIEren zerbitzuak bezero zein erabiltzaile gisa erabiltzen dituzten edo zerbitzuekin elkarreraginean aritzen direnek oinarritzko eskubide orokor batzuk dituzte, eta dokumentu honetan adierazitako edozein elementuri aplika dakizkioke.

### 3.1 Bezeroen eskubideak

Katalogoko zerbitzuren bat kontratatzen duen EJIEren edozein bezerok honako eskubide hauek ditu gutxienez:

- Behar dituen baliabideak eta horiek eskuratzeko aukera izatea, honako hauek egin ahal izateko:
  - Zerbitzu-katalogoa eskuratzeko, EJIEk zer zerbitzu eskaintzen dituen jakiteko.
  - Zerbitzu bakoitzaren ezaugarri orokorrak kontsultatzea, zerbitzu bakoitzak zer helburu, irismen eta hartzaila dituen jakiteko.
  - Zerbitzu-eskabidea kontratatzeke zer tarifa aplikatuko diren jakitea, kontratatu nahi den horrek zer kostu izango duen jakiteko eta aurrekontua behar bezala egin ahal izateko.
  - Eskatutako zerbitzuei dagokienez, EJIErekin hitzartutako akordioen ezaugarriak ezagutzea.
- Jasotzen dituen zerbitzuen inguruko erreklamazioak egin ahal izango ditu.
- Kontratatutako zerbitzuaren garapenari buruzko txostenak eduki ahal izango ditu.
- Jasotzen dituen zerbitzuetan aldaketak egin ahal izango ditu, bere beharretara egokitzeko, zerbitzuaren ezaugarrietan ezartzen denaren arabera eta formalizatutako kanalak eta prozedurak erabiliz.
- Harremanetarako pertsonak eta horiengana iristeko kanalak izango ditu, zerbitzuari buruzko askotariko alderdien inguruan hitz egin ahal izateko.

### 3.2 Bezeroen betebeharrak

Katalogoko zerbitzuren bat kontratatzen duen EJIEren edozein bezerok honako betebeharrak ditu gutxienez:

- Jasotzen dituen zerbitzuen ezaugarriak eta EJIEk hartutako kalitate-konpromisoak ezagutu beharko ditu.
- Zerbitzuak erabiltzeko baldintzak eta EJIErekin batera egindako akordioa bete beharko ditu.
- Informazioa galdatzeko edota zerbitzuren batean eskaintzen diren baldintzak aldatzea eskatzeko, ezarritako irispide-kanalak eta prozedurak erabili beharko ditu.
- Beharrezko informazioa eman beharko du, hala eskatzen badiote, EJIEk zerbitzu-katalogoan eta EJIErekin batera adostutako akordioetan jasotzen denaren arabera eman ditzan zerbitzuak.
- Zerbitzuak osatzen dituzten baliabide teknologikoen erabilerari dagokionez zein datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, indarrean dagoen legeria bete beharko du.

### 3.3 Araudia

- 35/1997 Dekretua, otsailaren 18koa, Informazio- eta telekomunikazio-sistemen egitekoak eta kudeaketa-modalitateen planifikazioa, eraketa eta banaketa arautzen dituen.
- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa.
- 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
- 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen araudia onartzen duena.
- 94/2009 Dekretua, apirilaren 21ekoa, otsailaren 18ko 35/1997 Dekretua, Informazio- eta telekomunikazio-sistemen egitekoak eta kudeaketa-modalitateen planifikazioa, eraketa eta banaketa arautzeari buruzkoa aldatzen duena.

- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena.
- 2/2011 Legearen 56. xedapena. 2/2011 Legea, martxoaren 4koa, Ekonomia Jasangarriari buruzkoa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa aldatzen duena.

### 3.4 Zerbitzuari buruzko erreklamazioen tratamendua

Bezero diren erakundeek eta erabiltzaileek zerbitzu bati buruzko erreklamazioak egin ditzakete, ezaugarrietako bat bete ez bada edo zerbitzua eskaintzeko erarekin pozik ez badaude. Erreklamazio horiek EJI Eren Kalitatea Kudeatzeko Sistemak bideratuko ditu, kalitatearen eskuliburuan azaldutako prozedurei jarraiki.

Zerbitzuari buruzko erreklamazio bat ez denean kanal arrunten bidez konpontzen, bezeroak EJI Eren Zuzendaritza Batzordera bidera dezake erreklamazioa, [reclamaciones@ejie.eus](mailto:reclamaciones@ejie.eus) helbide elektronikora idatziz.

### 3.5 Parte hartzeko moduak

Bezero diren erakundeek eta erabiltzaileek formalki har dezakete parte zerbitzu-katalogoaren kudeaketan eta berrikusketan EJI Eren harremanetan jarrita, jasotako zerbitzuari buruzko balorazioak, iradokizunak, erreklamazioak edo kexak aurkezteko, askotariko kanalen bidez:

- Zerbitzu-arduradunaren helbide elektronikora idatziz.
- Kalitatea kudeatzeko sistemaren bidez, [calidad@ejie.eus](mailto:calidad@ejie.eus) helbide elektronikora idatziz.
- ELZn erreklamazio bat aurkeztuz, 440 telefono luzapenaren bidez.
- Hala badagokio, zerbitzuaren eskaerak kudeatzeko egokitutako tresnan erreklamazio bat aurkeztuz.
- Kalitatea kudeatzeko sisteman erreklamazio bat aurkeztuz, [reclamaciones@ejie.eus](mailto:reclamaciones@ejie.eus) helbide elektronikoaren bidez.
- Kalitatea kudeatzeko sistemak aldian behin egiten duen gogobetetze-inkesta betez.

### 3.6 Zerbitzuaren konpromisoak eta kalitatea

Katalogoan dagoen zerbitzu bakoitzak kalitate-konpromiso batzuk ditu, urteko gutxieneko zerbitzu-mailak ezartzen dituztenak. Modu orokorrean, bi konpromiso zehaztu dira katalogo zerbitzu guztietarako:

- Aurkezten diren erreklamazio guztiei modu formalean erantzutea, gehienez ere, hilabeteko epean.
- Bezeroei egindako inkestetan 10etik 7ko gutxieneko gogobetetze-maila mantentzea.

Zerbitzuen konpromisoak (zerbitzu-mailari buruzko akordioak) etengabe monitorizatzen eta aztertzen dira, adierazle eta kontrol-maila egokien multzo baten bidez. Beste adierazle batzuetan, informazio garrantzitsua monitoriza daiteke, hala nola bolumenak eta lan-kargak.

Konpromisoren bat hartu ezean, dagokion zerbitzu-arduradunak egoera konpontzeko eta bezero-erakundeei eta erabiltzaileei kalterik ez eragiteko beharrezko ekintzak zehaztuko ditu.

Bestalde, EJI Eren Kalitatea Kudeatzeko Sisteman zuzendaritzak urtero egiten du berrikuspen-txostena, eta bertan, besteak beste, honako hauen berri ematen da:

- Zerbitzuen portaera ezarritako helburuekiko.
- Zerbitzu mailen joerei buruzko informazioa.
- Izan diren adostasun-erakundeak, erreferentziatzko arauak jarritako betekizunak edo zerbitzuaren eskakizunak eta horietan identifikatutako kausak direla eta.
- Bezeroaren gogobetetze maila, zerbitzuaren inguruko kexak eta gogobetetze mailen eta kexen analisiaren emaitzak.

## 4 Zerbitzu-lerroak

Katalogoko zerbitzuen kudeaketa errazteko, zerbitzuak multzo edo zerbitzu-lerro handitan sailkatu dira. Multzo zehatz horiek ezaugarri oso antzekoak dituzten edo jarduketa-eremu berean zentratzen diren jarduerak eta produktuak biltzen dituzte:

- Laguntza tekniko eta aholkularitza
- Komunikazioak
- Azpiegiturak
- Proiektuak
- Lanpostua
- Zerbitzu korporatibo bateratuak
- Erabiltzaileak
- Bestelako zerbitzuak

### 4.1 Laguntza tekniko eta aholkularitza

EJIEk bere bezeroei eskaintzen dien aholkularitza, kontsultoretza eta laguntza zerbitzuak; esparru hauetan espezializatutako langileek eskaintzen dute:

- Alor teknologiko jakin batean espezializatutako ezagutza dutenek (komunikazioak, proiektuak, segurtasuna).
- Bezeroen behar estandarrei erantzuten dieten merkatuko soluzio teknologikoei buruzko ezagutzak dituztenek.
- Administrazio publikoari, Eusko Jaurlaritzari eta horien prozesuei buruzko ezagutzak dituztenek.

Laguntza tekniko eta aholkularitza lerroaren barruan, EJIEk zerbitzu hauek ditu:

Zerbitzua	Definizioa
<b>Laguntza tekniko</b>	Laguntza teknikoaren zerbitzuaren xedea da EJIEren bezeroei langile espezializatuak eskaintzea, haien behar zehatzen arabera.
<b>Aholkularitza</b>	Aholkularitza-zerbitzuak EJIEko langileek hainbat alorretan (azpiegiturak, proiektuak, segurtasuna, estandarren definizioa) egiten duten lana biltzen du, bezeroen beharrak analizatzeko eta horiei lotutako soluzioak eta ekintza-planak definitzeko.

### 4.2 Komunikazioak

Komunikazioen arloan, konbergentziako bezeroentzat beharrezkoak diren konexioekin zerikusia duten zerbitzuak biltzen dira. Lerro honen barruan sartuko dira, halaber, EJIEren sare pribatura nahiz kanpora konektatzeko beharrezkoak diren telekomunikazio-zerbitzuak.

Zerbitzua	Definizioa
<b>WAN konektagarritasun</b>	WAN konektagarritasun zerbitzuaren helburua Eusko Jaurlaritzaren eraikinen artean era guztietako datuak transmititzeko behar guztiei erantzutea da. Bezero bakoitzak eskatzen duen komunikazio-azpiegitura ezartzeko obretarako kanpoko zerbitzuen kudeaketa eta kontratazioa zentralizatuko da.
<b>SMS kudeatua</b>	Zerbitzuari atxiki nahi zaizkion sektore publikoko entitate eta erakundeei SMS zerbitzua ematea errazten duen zerbitzua. Zerbitzuak honako ezaugarri hauek ditu: <ul style="list-style-type: none"> <li>– 200 SMS/segundoko abiadura bermatua eta eskusiboa erakunde bakoitzarentzat (ez da partekatua).</li> <li>– Kanpaina berezietarako behar izanez gero, abiadurak handitzeko aukera.</li> </ul>
<b>Ahotsa</b>	IP telefoniako plataforma bat eskaintzen duen zerbitzua, zerbitzura harpidetutako erakundeei telefoniako, contact center-eko, operadore postuko prestazioak eskaintzeko aukera ematen diena.

<b>Komunikazio mugikorak</b>	Kudeatzen diren eta seguruak diren komunikazio mugikorren arloan (ahotsa, datuak eta zerbitzu gehigarriak eta balio erantsia dutenak), EJI Eren bezero diren erakundeen eta erabiltzaileen beharrei erantzuteko zerbitzua.
<b>Nabigazioa</b>	Web nabigazio zerbitzuak funtzionalitate hauek ditu, kontratatutako zerbitzuaren tipologiaren arabera: <ul style="list-style-type: none"> <li>– Erakundearen barruan dauden pertsona, ekipo eta aplikazioentzako Internetarako sarbide segurua.</li> <li>– Internetarako sarbide segurua erakundetik kanpo dauden pertsonentzat.</li> <li>– Web nabigazioa iragaztea, URLen ospean eta kategorizazioan oinarrituta.</li> <li>– Birusen aurkako teknologia tradizionalen oinarritutako mehatxuen oinarritzko detekzioa.</li> <li>– Mehatxuen detekzio aurreratua sandboxing teknologian oinarrituta.</li> </ul>
<b>Bideoa</b>	Bideokonferentziako eta bideo-kudeaketako plataforma honi esker, zerbitzura biltzen diren erakundeek prestazio hauek eskuratu ahal izango dituzte: <ul style="list-style-type: none"> <li>– Bideokonferentziak egitea erakunde bereko, erakunde desberdinetako eta kanpoko pertsonen artean. Erabiltzaile horiek bideokonferentziara batu daitezke baldintzak betetzen dituen edozein gailu erabiliz (PCa, mugikorra, tableta, IP telefonoa, ohiko telefonoa edo ekipamendu espezifikoa duen gela).</li> <li>– Bideokonferentzien bideoa eta audioa grabatzea.</li> <li>– Zuzenean igorritako edo eskariaren arabera kontsumitutako edukiak bistaratzea.</li> <li>– Ikus-entzunezko edukien edizio aurreratua.</li> </ul>
<b>LAN eta Wifi konektibitatearen kudeaketa</b>	Lan eta WIFI konektibitatea kudeatzeko zerbitzuaren helburua da erakundeetan dagoen azpiegitura egokitzea, bai eta beharrezkoa den azpiegitura berria hornitzea ere. Gainera, zerbitzuak erakundeek eskatzen duten Internetarako sarbidea ere barne hartzen du.
<b>WAN konektagarritasuna</b>	WAN konektagarritasun-zerbitzuaren helburua da Eusko Jaurlaritzaren eraikinen artean mota guztietako datuak transmititzeko premia guztiei erantzutea. Kanpoko zerbitzuen kudeaketa eta kontratazioa zentralizatuko da bezeroek eskatzen dituzten komunikazio-azpiegiturak ezartzeko obretarako.
<b>Urruneko konexio segurua</b>	Zerbitzu honek urruneko konexio segurua eskaintzen du, eta urruneko sarbide segurua ahalbidetzen du entitateen sareetara sartzeko, Internet bidez, autentifikazioan eta zifratzean oinarrituta. Gaur egun, telelanaren gorakadarekin, zerbitzu honek segurtasun-estrategia bat eskaintzen die atxikitako entitateei.

### 4.3 Azpiegiturak

Azpiegituren zerbitzu kudeatuek harpidetza-aukera ugari eskaintzen dizkiete konbergentziako bezeroei, beren negozio-prozesuen beharrak asetzeko. Zerbitzu horiek Cloud arkitektura baten eskaintza osoa eskaintzen dute, hala nola: IaaS, BaaS, Hosting-a (Oinarritzko: zerbitzaria; Ertaina: plataforma; Aurreratua: aplikazioak) eta Ez-cloud (esaterako, Housing-a eta zerbitzari fisikoen lagapena).

Azpiegituren zerbitzuek konbergentziako gainerako zerbitzuen hardware eta software azpiegiturak hartzen dituzte.

Azpiegituren lerroaren barruan, EJI E zerbitzu hauek ditu:

Zerbitzua	Definizioa
<b>Housing-a</b>	Zerbitzuak espazio fisikoa eta erraztasunak eskaintzen ditu bezeroaren berezko azpiegitura-elementuak EJI Eren DPZren barruan sartzeko. Espazio fisikoaz gain, konexio elektrikoak, klimatizazioa, sarera konektatzea, muntaketa eta desinstalazioa, birziklapena eta urruneko eskuen aukerak, eta Backup zintzen zaintza eskaintzen dira.
<b>IaaS azpiegitura teknologikoak zerbitzu gisa</b>	IaaS zerbitzuak, azpiegitura modalitatean, hodeiko zerbitzu gisa (Cloud IaaS), Informazioaren Teknologien eredu arin bat eskaintzen du, abiadura eta malgutasuna lehenesten dituena. Elkarreragingarritasun hibridodun Cloud bat izango da, azpiegitura automatizatuan eta aplikazioen segmentazio seguruan oinarritua, Eusko Jaurlaritzari, erakunde autonomoei eta euskal sektore publikoko beste erakunde batzuei IT zerbitzuak emateko sortua. IaaS zerbitzua Cloud publikoen zerbitzuez hornitu ahal izango da modu gardenean, bezeroentzat.
<b>Backup Zaintza</b>	Segurtasun-kopien zerbitzu kudeatua, informazio-sistemak BATERAn dituzten bezero guztiek eta eskatzen duten bezero guztiek kontsumitzen dutena.

	Zerbitzu honek datuen babesa eskaintzen die bezeroei, egunero egiten baitira datuen segurtasun-kopiak. Babesteko erabil daiteke, baina baita hondatutako edo galdutako edozein datu lehengoratzeko ere.
<b>STaaS biltegiatzea zerbitzu gisa</b>	Eskatzen duten bezeroei biltegiatze kudeatua eskaintzeko zerbitzua. Biltegiatze-zerbitzu hori eskuratu eta kontsumitu behar duen jatorrizko zerbitzu motaren arabera, biltegiatze-mota bat edo beste eskainiko zaio, hainbat faktoreren arabera (sarbide-protokoloa, errendimendua, edukiera, etab.). Zerbitzu horrek datuak biltegiatze plataformara baterako sarbidea ematen dio bezeroari. Datuak transferitzeko eta biltegiatze erredundanterako erabil daiteke, baita kaltetutako edo galdutako edozein datu lehengoratzeko ere.
<b>Hosting-a</b>	Zerbitzu honek aplikazioen, konputazioaren, biltegiatzearen, sareen eta kontingentzien kudeaketa teknologiko globala egiten du, malgutasunez. Bizi-ziklo osoa hartzen du, hala nola Bateraren hodeian integratu beharreko sistemak identifikatzea, hodeia definitu eta harako trantsizioa egitea eta hodeia bera operatu eta haren euskarri-lanak egitea. <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Oinarrizko hosting-a – zerbitzarien kudeaketa:</b> Zerbitzu modalitate hau informazioaren teknologien plataformak kudeatzeko autonomia duten baina plataforma horiek dituzten azpiegituraren kudeaketaz kezkatu nahi ez duten bezeroentzat da. IaaS modalitatean eskaintako zerbitzuez gain, oinarrizko hosting-ak azpiegituran sortutako gorabeherak eta arazoak kudeatzen laguntzeko eskuragarri dagoen euskarri tekniko espezializatu bat ere badu, bezeroaren IT taldeak bere kabuz konpondu ezin duena.</li> <li>- <b>Hosting ertaina – plataformen kudeaketa:</b> Zerbitzu-modalitate hau negozio-aplikazio propioak kontrolatu nahi dituzten baina beren negozio-aplikazioen funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren plataformen eta produktu estandarren kudeaketaz eta oinarrizko modalitatean sartuta dagoen azpiegituraren kudeaketaz kezkatu nahi ez duten bezeroentzat da. Kontsultetarako eta fabrikatzailearen eskalatuak eragin ditzakeen arazoetarako euskarri tekniko espezializatua du.</li> <li>- <b>Hosting aurreratu – aplikazioen kudeaketa:</b> zerbitzuaren kalitate onena nahi duten bezeroei dago zuzenduta modalitate hau. Euskarri-lanak egiten dituzten gure taldeak zuen negozio-aplikazioen euskarri diren datu-base eta produktu nagusiak kudeatzeaz eta administratzeaz arduratuko dira. Negozio-aplikazio horiek eta haien bizi-zikloak estandarizatzen dira, eta erabilgarritasuna eta segurtasuna maximizatzen.</li> </ul>

## 4.4 Proiektuak

Aplikazioen garapenari, ezarpenari eta mantentzeari dagozkion zerbitzuak, eta Eusko Jauriaritzaren azpiegituran produktu informatikoak integratzearekin zerikusia duen bestelako edozein zerbitzu.

Halaber, lerro honetan izaera teknologikoko proiektuak ere sartzen dira, baldin eta beste zerbitzu batzuek edo horiek baliatzen dituzten erabiltzaileek erabil ditzaketen produktuak badira emaitza.

Proiektu-lerroaren barruan, EJIEk zerbitzu hauek ditu:

Zerbitzua	Definizioa
<b>Aplikazioak garatzea</b>	Neurrira eginiko produktu bat planifikatuz, diseinatuz eta garatuz edo soluzio estandar bat konfiguratzuz, bezero baten beharrei erantzutera bideratutako zerbitzua. Zerbitzuak Eusko Jauriaritzaren estandarrak eta EJIEren barne araudia betetzen ditu. Zerbitzuaren parte gisa aplikazioen kalitate-kontrol bat egingo da, ikuspegi tekniko eta funtzionaltik, Eusko Jauriaritzaren azpiegituran txertatuko diren produktuen fidagarritasuna eta kalitatea ziurtatzeko.
<b>Aplikazioen mantentze-lanak</b>	Neurrira eginiko produktu baten edo konfiguraturako soluzio estandar baten zuzenketa eta garapen mantentze-lanak egiteko zerbitzua, betiere Eusko Jauriaritzaren estandarrak eta barne arauak betez. Zerbitzuaren parte gisa aplikazioen kalitate-kontrol bat egingo da, ikuspegi tekniko eta funtzionaltik, Eusko Jauriaritzaren azpiegituran txertatuko diren produktuen fidagarritasuna eta kalitatea ziurtatzeko.
<b>Proiektu teknologikoak</b>	Proiektu teknologikoen zerbitzuan sartzen da izaera teknikoko proiektuen ikerketa, plangintza eta garapena, gerora beste zerbitzu batzuek (adib. Aplikazioak diseinatzea) erabiliko dituzten edo uneko baliabideak bezeroen eta EJIEren beharretara (adib. Oracle bertsio-berritzea) moldatzen dituzten soluzio teknologikoak diseinatu eta ezartzeko.

## 4.5 Lanpostua

Lanpostuan sartzen diren zerbitzuek beharrezko tresna guztiak ematen dizkiete entitate bezeroen erabiltzaileei eguneroko jarduerak egiteko, dela lantokian, dela urrunetik, hardware, software edo euskarri bidez.

Zerbitzua	Definizioa
<b>Mahaigain birtualeko zerbitzua (Lekuona)</b>	Azken erabiltzaileen lanpostua birtualizatzeko zerbitzu bat da (virtual desktops), baita egunero erabiltzen dituzten negozio-aplikazioena ere (virtual applications), VMWare produktuetan oinarrituta dagoena. Zerbitzu hau edozein gailutatik eta edozein lekutatik erabili ahal izango da, bezero bakoitzaren erabiltzaile korporatiboaren bidez sartuz.
<b>Inprimaketaren kudeaketa</b>	Inprimatzeko ekipamendua, matxurak mantentzeko eta konfiguratzeko lotutako zerbitzuak eta osagai kontsumigarri guztiak hornitzeko zerbitzua da; erabiltzaileek inprimatzeko ingurune bideragarria, kudeatua eta eraginkorra izan dezatela bermatzeko.
<b>Kudeatutako lanpostua</b>	Zerbitzu honek lanpostuan eguneroko jarduerak egiteko behar diren baliabide teknologikoak ematen dizkie erabiltzaileei, betiere entitate bezero bakoitzaren beharrezanean erantzunez eta zerbitzua erabiltzen duten entitateek zehaztutako politikak eta erabilera-arauak betez.

## 4.6 Zerbitzu korporatibo bateratuak

Zerbitzu korporatiboek EJIEren cloud eta DPZ bidez modu seguruan eskainiko diren lankidetzaz-zerbitzuak eta hodeiko ostatuaren produktibitatea hobetzeko zerbitzuak biltzen dituzte.

Zerbitzua	Definizioa
<b>Lankidetzaz eta komunikazio zerbitzuak (Elkarlan)</b>	Elkarlan zerbitzua Eusko Jaurlaritzako langile publikoen produktibitatea hobetzera bideratutako zerbitzuen multzoa da. Zerbitzu horiek modu paketizatuan ematen zaizkie bezeroei, erabiltzaileen profilen beharrei erantzun egokiena emateko. EJIEk bi modalitateen bidez eskaini ditzake Elkarlan zerbitzu horiek: <ul style="list-style-type: none"> <li>- On premise. EJIEren hodeian eskaintzen diren zerbitzu hauek ditu: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Posta elektronikoa (MS Exchange)</li> <li>• Lankidetzaz-espazioak (MS SharePoint), hornikuntza kentzeko fasean.</li> </ul> </li> <li>- Cloud SaaS. Gainera, zuzenean Microsoften hodeian eskaintzen den Office 365 zerbitzuko beste zenbait plan kontratatze aukera dago. <ul style="list-style-type: none"> <li>• Exchange On-line</li> <li>• Office365 Enterprise E1</li> <li>• Office365 Enterprise E3.</li> </ul> </li> </ul>
<b>Segurtasun Eragiketen Zentroaren zerbitzua</b>	Segurtasun Eragiketen Zentro bat eskaintzera bideratutako zerbitzua, hainbat irtenbide eskaintzen dituena (mehatxuen eta kalteberatasunen kudeaketa, SIEM, EDR, zaintza digitala, CSIRT), honako hauek ahalbidetzen dituena: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Azpiegituraren segurtasuna arriskuan jar dezaketen arriskuak modu proaktiboan prebenitzea.</li> <li>- Azpiegituran dauden kalteberatasunak identifikatzea eta aztertzea.</li> <li>- Azpiegituran dauden kalteberatasunak arintzea.</li> <li>- Segurtasun-mehatxuak detektatzea, identifikatzea, neutralizatzea eta horiei erantzutea.</li> <li>- Sareko endpointak monitorizatu eta aztertzea, segurtasun-mehatxuak prebenitzeko eta hautemateko.</li> </ul>
<b>BDaaS plataforma - BigData zerbitzu gisa</b>	BDaaS zerbitzua Big Data Multitenant plataforma bat da; horren bidez, zerbitzu honetan harpidetutako erakundeek honako prestazio eta funtzionalitate hauek baliatu ahal izango dituzte: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Plataforma malgua, erabiltzaileen beharretara egokitzen dena; eskalagarria baita bai zerbitzu-kopuruari dagokionez, bai biltegitratze-mailari dagokionez.</li> <li>- Plataformako kontsumitzaileen beharren arabera egokitze eta eboluzionatzeko gai den irtenbidea da.</li> </ul> <p>Datuen tamainaz gain, kalitatea, prozesatzea eta datuen zein balio lortu nahi den ere kontuan hartzen da.</p>

## 4.7 Erabiltzaileak

Katalogoko zerbitzu guztietan, honako hauek barne hartzen dira zerbitzuaren kontratazioan: erabiltzailearentzako laguntza, identitateen eta sarbideen kudeaketa eta zerbitzu bakoitzerako definitutako segurtasun-kontrol estandarra.

Gainera, zerbitzu eta eskaintza hauek eskaintzen dira:

Zerbitzua	Definizioa
<b>Identitateen eta sarbideen kudeaketa (IAM)</b>	<p>Identitateen eta sarbideen kudeaketako zerbitzuaren (aurrerantzean, IAM zerbitzua) helburu nagusia da EJIEk zerbitzu konbergenteak kontsumitzen eta/edo administratzen dituzten erakundeei eskainiko dizkien zerbitzuen identitatearen gobernuaren oinarria izango diren jarraibideak ezartzea.</p> <p>Zerbitzu mota hauek eskainiko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Identitate administratzaileak <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Administrazio-identitateak dira, edo nolabaiteko pribilegioa dutenak, eta zerbitzu konbergente bat modu global edo partzialean administra dezakeen edozein pertsonari eman ahalko zaizkio. <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Erakundeen erabiltzaile baimenduak</li> <li>▪ Euskarri-erabiltzaileak (sistemak)</li> <li>▪ Laguntza teknikoak (garapena)</li> <li>▪ EJIE</li> </ul> </li> </ul> </li> <li>- Kudeatutako identitateak <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Kontsumo-identitateak dira beti, eta, horiei esker, zerbitzu konbergenteak kontsumi daitezke.</li> </ul> </li> <li>- Cloud identitateak <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Horiei esker, Cloud aplikazioetara edo zerbitzuetara sar daiteke, dela konbergentzian eskaintzen diren zerbitzuetara, dela erakundearenak diren Cloud zerbitzuetara.</li> </ul> </li> </ul>
<b>Erabiltzaileentzako arreta</b>	<p>Erabiltzaileentzako arreta-zerbitzuak laguntza ematen die konpainietako erabiltzaileei (giza kapitala), eta balioa, konfiantza eta fidagarritasuna ematen die. Gure langile, teknologia eta prozesuak prest daude eta berriaz prestatuta daude pertsonen laguntzeko teknologiaren arloan, segurtasuna ematen diete taldeko kideei eta enpresa-prozesuetarako egunero erabiltzeko tresnen gaineko konfiantza sustatzen dute.</p> <p>Haren helburua da harreman elebidunetarako puntu bakar izatea, informatikaren arlokoak izan ohi diren gertakariak kudeatzeko; nolahi ere, <i>ad hoc</i> definizioak egin daitezke zenbait prozesuetarako. – Langileak (B2E), kontsumitzaileak (B2C) eta profesionalak (B2B)–.</p>

## 4.8 Bestelako zerbitzuak

Beste lerro batzuetan kokatu ezin daitezkeen zerbitzuak dira. Oro har, banakako proiektuetatik abiatu eta gerora zerbitzu gisa ezarri direnak.

Halaber, lerro honetan sartzen dira neurri eginiko zerbitzuak, hau da, EJIEk epe mugatu batez bezero den erakunde baten behar zehatzei erantzuteko neurri diseinatu eta sortutako zerbitzuak.

Bestelako zerbitzuen lerroan, EJIEk zerbitzu hauek ditu:

Zerbitzua	Definizioa
<b>Neurri eginiko zerbitzuak</b>	<p>Neurri eginiko zerbitzuen barruan daude katalogoko beste zerbitzuek erantzun ezin dituzten bezero baten behar jakinei lotutako zerbitzu guztiak. Bezero den erakunde jakin batentzako sortzen dira berriaz eta alde batera uzten dira zerbitzu-aldia bukatzen denean.</p> <p>Neurri eginiko zerbitzu bat berriro erabili badaiteke, EJIEren Zuzendaritzak hura zerbitzu-katalogoan sartzeko aukera ebaluatuko du, beste rol batzuen laguntzaz.</p>



## 5 Zerbitzu-fitxak

Jarduera-esparruak hobeto zehaztearren, bezero den erakunde bati eskaintzen zaion zerbitzu bakoitzeko azalpen-fitxa bat sartu da, zerbitzuaren oinarrizko ezaugarriak biltzeko asmoz.

Hona hemen zerbitzu-fitxan agertzen diren eremuen azalpen laburra:

- **Zerbitzuaren izena:** fitxan deskribatzen den zerbitzuaren izena.
- **Zerbitzu-lerroa:** fitxako zerbitzuaren talde logikoa edo lerroa.
- **Arduraduna:** zerbitzuaren arduraduna eta harremanetarako helbide elektronikoa.
- **Bezeroa:** Zerbitzu hori eskatu eta kontratatu dezakeen organoa edo erakundea.
- **Definizioa:** zerbitzuaren definizio laburra, dokumentuaren aurreko atalekoaren antzekoa.
- **Ezaugarriak:** zerbitzuaren oinarrizko alderdiak, zerbitzua emateko oinarrizko baldintzak eta euskarri-lanak barne.
- **Zerbitzuaren tipologiak:** zerbitzuan dauden tipologiaren zerrenda eta azalpena, halakorik badago.
- **Zerbitzuaren eskaintza:** zerbitzu horretan sartzen den eskaintza-zerrenda eta definizioa, halakorik izanez gero.

## 5.1 Laguntza tekniko eta aholkularitza

ZERBITZU-FITXA	
<b>Zerbitzuaren izena</b> Laguntza tekniko	<b>Zerbitzu-lerroa</b> Laguntza tekniko eta aholkularitza
<b>Arduraduna</b> Juanjo Villa jj-villa@ejie.eus	<b>Bezeroak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Informatika eta Telekomunikazioen Zuzendaritza</li> <li>- Eusko Jaurlaritzako sailak</li> <li>- Erakunde publikoak</li> <li>- Sozietate publikoak.</li> <li>- Erakunde autonomoak</li> </ul>
<b>Definizioa</b> Laguntza teknikoaren zerbitzuaren xedea da EJIEn bezeroei langile espezializatuak eskaintzea, haien behar zehatzen arabera.	
<b>Ezaugarriak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Laguntza tekniko eta aholkularitzako lanak egiteko profil profesional egokia duten langileen (barnekoak zein kanpokoak) esleipena, IT arloan bezero bakoitzak eskatzen duenaren arabera.</li> <li>- Esleitutako proiektuen analisi funtzionalak egitea.</li> <li>- Zehaztutako proiektu, jarduera eta prozesuen kudeaketa eta kalitate kontrola.</li> <li>- Informazio-sistemak ezartzen laguntzea.</li> <li>- EJIEn gomendatutako garapen-proiektuen gidaritza.</li> <li>- Dagokion sail edo organismoaren ITaren plangintzan laguntzea.</li> <li>- Sailen edo erakundearen arteko elkarlaneko proiektuetan solasaldi teknikoak, hala behar izanez gero.</li> <li>- Sailaren edo erakundearen egoeraren eta eboluzio-aurreikuspenen analisia, soluzio teknologiko egokiak identifikatuz eta proposatuz.</li> <li>- Dedikazio oro izango da fakturagarri, hauek izan ezik:             <ul style="list-style-type: none"> <li>o Amatasunagatiko baimena</li> <li>o ABEagatiko baja (aldi baterako ezintasun izapidetua)</li> <li>o Oporrak eta baimenak</li> <li>o Ordu sindikalak</li> <li>o (Aparteko orduak, salbuespenak salbuespen, zero izan beharko lirateke. Fakturatzan badira, neutroak izan behar dira, eta, horrenbestez, ordu horiek egiten edo konpentsatzen direnean kobratuko dira).</li> </ul> </li> </ul>	
<b>Zerbitzu-tipologiak</b> Zerbitzu honek ez du zerbitzu-tipologiarik	

ZERBITZU-FITXA	
<b>Zerbitzuaren izena</b> Aholkularitza	<b>Zerbitzu-lerroa</b> Laguntza teknikoa eta aholkularitza
<b>Arduraduna</b> Aritza Iratzagorria a-iratzagorria@ejie.eus	<b>Bezeroak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Informatika eta Telekomunikazioen Zuzendaritza</li> <li>- Eusko Jaurlaritzako sailak</li> <li>- Erakunde publikoak</li> <li>- Sozietate publikoak.</li> <li>- Erakunde autonomoak</li> </ul>
<b>Definizioa</b> Aholkularitza-zerbitzuak EJIEko langileek hainbat alorretan (azpiegiturak, proiektuak, segurtasuna, estandarren definizioa) egiten duten lana biltzen du, bezeroen beharrak analizatzeko eta horiei lotutako soluzioak eta ekintza-planak definitzeko.	
<b>Ezaugarriak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Soluzio teknologikoak aukeratzeko merkatuaren ikerketa konparatiboak.</li> <li>- Proiektuaren epeen, kostuen eta kalitatearen parametroak ezartzeko akordioa.</li> <li>- Informazio-sistemei, teknologiei eta tresnei buruzko aholkularitza espezializatua.</li> <li>- Oinarri teknikoen eta kontratu-proposamenen pleguak egitea.</li> </ul>	
<b>Zerbitzu-tipologiak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Analisia:</b> zerbitzuaren parte gisa, egoeraren analisia egingo da eta arazoa konpontzeko gidalerro batzuk emango dira.</li> <li>- <b>Analisia + aukeren ikerketa:</b> proiektuak uneko egoeraren analisia eta arazoa konpontzeko erabilgarri dauden aukeren deskribapena egingo ditu.</li> <li>- <b>Analisia + aukeren ikerketa + aukeraren planifikazioa:</b> proiektuak uneko egoeraren analisia, arazoa konpontzeko erabilgarri dauden aukeren ikerketa bat eta aukeraturako soluzioa ezartzeko ekintza-planerako jardueren azalpen bat egingo ditu.</li> <li>- <b>Analisia + aukeren ikerketa + aukeraren planifikazioa + pilotu bat edo kontzeptu-proba bat egitea:</b> uneko egoeraren analisia, hautatutako soluzioaren identifikazioa eta ezarpenaren plangintza, eta soluzioa egokia dela ziurtatuko duen proiektu pilotu bat egitea hartzen ditu barnean.</li> </ul>	

## 5.2 Komunikazioak

ZERBITZU-FITXA	
<b>Zerbitzuaren izena</b> WAN konektagarritasuna	<b>Zerbitzu-lerroa</b> Komunikazioak
<b>Arduraduna</b> Josu Bagazgoitia j-bagazgoitiasaez@ejie.eus	<b>Bezeroak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Informatika eta Telekomunikazioen Zuzendaritza</li> <li>- Eusko Jaurlaritzako sailak</li> <li>- Erakunde autonomoak</li> <li>- Erakunde publikoak</li> <li>- Sozietate publikoak.</li> </ul>
<b>Definizioa</b> WAN konektagarritasunako zerbitzuaren helburua Eusko Jaurlaritzaren eraikinen artean era guztietako datuak transmititzeko behar guztiei erantzutea da. Bezero bakoitzak eskatzen duen komunikazio-azpiegitura ezartzeko obretarako kanpoko zerbitzuen kudeaketa eta kontratazioa zentralizatuko da.	
<b>Ezaugarriak</b> Eskatutako telekomunikazio-zerbitzuei esker, Eusko Jaurlaritzak eta gainerako erakundeek oinarritzko helburu hauek bete ahal izango dituzte: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Transmisio-bide egokiak ezartzea, Eusko Jaurlaritzako sareen eta erakundeen egoitzen arteko komunikazio korporatiboak modu eraginkorrean egin ahal izateko.</li> <li>- Hainbat zerbitzu motarako interkonexio pribatuak ahalbidetuko dituzten transmisio-bide egokiak ezartzea.</li> <li>- Kontratutako zerbitzuak kontrolatzeko eta kudeatzeko mekanismoak eta tresnak ezartzea inplikaturako maila guztietan, EJIeko zerbitzu teknikoei ahalik eta jarduketa-mailarik handiena eta erabateko kontrol-maila ahalbidetzeko.</li> <li>- Komunikazio guztien eraginkortasun-, erabilgarritasun-, kalitate-, pribatutasun- eta segurtasun-maila gorenak bermatzea, oso-osorik eta uneoro.</li> </ul>	
<b>Zerbitzu-tipologiak</b> Ondoren, erakundeek kontratatu ahal izango dituzten zerbitzu-tipologiak adieraziko dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>- SDWAN</li> <li>- MPLS (arrunta/zifratua)</li> <li>- Zuntz iluna</li> <li>- Zerbitzu optikoa (arrunta/zifratua)</li> <li>- Hodei publikorako konexio pribatuko zerbitzua</li> <li>- Beste batzuk (4G/5G, VPN-IP asimetrikoa)</li> </ul> WAN azpiegitura pasiboko zerbitzuak honako zerbitzu-eskaera hauek egiteko aukera ematen du: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zerbitzuko alta</li> <li>- Aldi baterako gertaeraren alta</li> <li>- Zerbitzua eraikin berri batera edo lehendik dagoen eraikin batera eramatea</li> <li>- Zerbitzuan aldaketa egitea</li> <li>- Zerbitzuko baja</li> <li>- Zerbitzuko berariazko txostena eskatzea</li> </ul> Gainera, zerbitzu horietan eraikineko hornidura elektrikoaren monitorizazioa eskatu ahal izango da.	
<b>Tarifak</b> Tarifak hemen eguneratzen dira: <a href="#">I. Eranskina: Enkarguetan aplikatu beharreko indarrean dauden tarifak</a>	

ZERBITZU-FITXA	
<b>Zerbitzuaren izena</b> SMS kudeatua	<b>Zerbitzu-lerroa</b> Komunikazioak
<b>Arduraduna</b> Josu Bagazgoitia j-bagazgoitiasaez@ejje.eus	<b>Bezeroak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Informatika eta Telekomunikazioen Zuzendaritza</li> <li>- Eusko Jauriaritzako sailak</li> <li>- Erakunde autonomoak</li> <li>- Erakunde publikoak</li> <li>- Sozietate publikoak.</li> </ul>
<b>Definizioa</b> SMS kudeatuaren zerbitzuak SMS zerbitzua ematea errazten die zerbitzura atxiki nahi duten sektore publikoko entitate eta erakundeei. Zerbitzuak honako ezaugarri hauek ditu: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Entitate bakoitzerako (ez da partekatua) 200 SMS/segundoko abiadura bermatua eta eskusiboa</li> <li>- Kanpaina berezietarako behar izanez gero, abiadurak handitzeko aukera</li> <li>- Bi elementutan oinarritzen da:               <ul style="list-style-type: none"> <li>• A2P mezularitza: SMS eta MMS mezularitzako soluzio globala. Alde batetik, bezeroaren urruneko aplikaziotik mezularitza-azpiegitarako sarbidea ematen du, eta SMSak eta MMSak trukatzeko aukera ematen du. Bestalde, mezuak transmititzeko aukera ematen duten sare mugikorreko elementuekiko interfazeak kudeatzen ditu, interfaze horiek bezeroarentzat gardenak izan daitezten.</li> <li>• MenTes: software plataforma eta lotutako IT zerbitzuak, A2P mezularitza zerbitzuan lan eginez beren funtzionalitatea handitu eta indartzen dutenak, erakunde bakoitzaren berariazko eskakizunetara egokitzeko.</li> </ul> </li> </ul>	
<b>Ezaugarriak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aktibo-aktiboa duten plataformen erreduantzia, IP 1 edo 2 IP bidezko sarbidearekin. Bi plataforma daude bi kokapen geografikotan; eta horietako bat erori edo degradatzen bada, bigarren plataformak har dezake bere gain trafikoa. Bi plataformetara sartzeko aukera (2 IP) eta trafikoa batetik edo bestetik zuzentzea erakunde bakoitzaren irizpidearen arabera; edo sarrera-puntu bakar batera sartzeko (IP 1), eta hornitzailea izan dadila bi plataformen arteko trafikoa orekatzen duena.</li> <li>- Segurtasun Eskema Nazionala bere maila gorenean betetzea.</li> </ul>	
<b>Zerbitzu-tipologiak</b> Zerbitzua SMS kudeatuaren zerbitzua izeneko tipologia bakarrean oinarrituta ematen da. <b>Zerbitzuaren eskaintza teknikoak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- SMS nazionala: erabiltzaileak alta eman ahal izango dio zenbakitze labur edo luze bati.</li> <li>- Nazioarteko SMS</li> <li>- Interkonexio pribatua</li> <li>- Eskura dauden tresnak:               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Estatistika eta txostenen web ataria</li> <li>• Kanpainen web ataria</li> </ul> </li> </ul>	
<b>Tarifak</b> Tarifak hemen eguneratzen dira: <a href="#">I. Eranskina: Enkarguetan aplikatu beharreko indarrean dauden tarifak</a>	

ZERBITZU-FITXA	
<b>Zerbitzuaren izena</b> Ahotsa	<b>Zerbitzu-lerroa</b> Komunikazioak
<b>Arduraduna</b> Josu Bagazgoitia j-bagazgoitiasaez@ejie.eus	<b>Bezeroak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Informatika eta Telekomunikazioen Zuzendaritza</li> <li>- Eusko Jaurlaritzako sailak</li> <li>- Erakunde autonomoak</li> <li>- Erakunde publikoak</li> <li>- Sozietate publikoak.</li> </ul>
<b>Definizioa</b> IP telefoniako plataforma bat eskaintzen duen zerbitzua, zerbitzura harpidetutako erakundeei prestazio hauek eskaintzeko aukera emango diena: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erakunde barneko deiak egitea</li> <li>- Zerbitzua sare publikoa erabili gabe erabiltzen duten erakundeen arteko deiak egitea</li> <li>- Kanporako deiak egitea (sare publiko bateraturako irteera)</li> <li>- Deiak kudeatzeko Contact Center bat ezartzea (agenteekin eta gainbegiraleekin)</li> <li>- Operadore-postuaren bidez deiak kudeatzea</li> <li>- Deiak grabatzea</li> <li>- Erantzun-sistema interaktiboak konfiguratzeko (IVR)</li> <li>- Ahots-postontziak konfiguratzeko</li> <li>- Plataformaren erabilerari buruzko informaziora irispidea izatea: luzapenen jardura eta deien tarifakzioa</li> </ul> Zerbitzua diseinatzeko garaian, alderdi hauek hartu dira kontuan: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erabiltzaileak dagoeneko baduen eta etorkizunean izan dezakeen teknologiarekin ahalik eta elkarreragingarritasun handiena izatea</li> <li>- Jarraitutasuna eta jasangarritasuna bermatzen duten estandarretan oinarritutako soluzioa izatea</li> <li>- Erabilerraza izatea</li> <li>- Erabilgarria izatea</li> <li>- Eskalagarritasuna; zerbitzua prest utziko da, eskariaren arabera haz dadin</li> </ul>	
<b>Zerbitzu-tipologiak</b> <b>IP telefonia</b> Zerbitzu honek dei mota hauek egiteko aukera ematen du: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erakunde barnekoak</li> <li>- Zerbitzua sare publikoa erabili gabe erabiltzen duten erakundeen artekoak</li> <li>- Erakundetik kanporako deiak (sare publiko bateratua erabilita)</li> </ul> Era berean, zer aukera hautatu den, prestazio gehigarriak izan daitezke: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahots-postontzia (operadore pertsonalaren sistema barne)</li> <li>- Dei-grabazioa</li> <li>- Tipologia horren barruan, luzapen hauek bereizten dira:                             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Oinarrizko telefono-luzapena</li> <li>• Telefono-luzapen aurreratua (biziraupena barne)</li> </ul>                             Bi kasuetan (oinarrizko luzapena edo aurreratua), hauetako bat edo biak aukeratu daitezke (prestazio gehigarriak):                         </li> <li>- Ahots-postontzia (operadore pertsonalaren sistema barne)</li> <li>- Dei-grabazioa</li> </ul>	

## Contact Center

Zerbitzu honek deiak kudeatzeko zentro bat ezartzeko aukera ematen du, deiak agenteen artean banatzeko, haien trebetasunak kontuan hartuta, eta deien jarduera guztiari buruzko txostenak eskuratzeko. Ezaugarri hauek ditu:

- ACD: banaketa-arau pertsonalizatuak konfiguratzeko.
- CTI: kudeaketa-aplikazioekin, scriptekin, IVRekin eta garapenekin integratzea, MiContact Center Enterprise-ren SDKen bitartez.
- IVR: sarrerakoa eta irteerakoa. TTS eta ASR euskarria.
- Markaketa prediktiboa: markaketa prediktibo progresiboko sistema, kontaktuak inportatzeko interfazearekin.
- Dei-grabazioa
- Txostenak: jarduerari buruz Contact Centerren dagoen informazio estatistikoa berehala eskuratzeko, aurrez diseinatutako txostenen bidez. Txostenak bezeroen eskariaren arabera pertsonalizatzeko aukera ere ematen du.
- Web App: web-aplikazioak, datu-formularioak eta Contact Centerren integratutako gidoi dinamikoak diseinatzeko.
- Fluxuaren diseinua: IVR aplikazioak, lan-fluxuak eta atazen automatizazioa programatzeko aukera ematen duen tresna grafikoa.
- Informazio-sistemekin eta negozio-prozesuekin integratzea, lan-fluxuak automatizatzeko.
- Agentea: telefono fisikoa ordezkatzeko duen interfazea, telefono bidezko interakzioak kudeatzeko aukera ematen duena.
- Gainbegiralea: agenteak denbora errealean gainbegiratzeko eta monitorizatzeko web-interfazea, agenteek ematen duten zerbitzua kontrolatzeko eta laguntzeko aukera ematen duena.
- Administrazioa: konfigurazio- eta sarbide-interfazea, sistema osoa batera administratzeko aukera ematen duena.
- Weben oinarritutako konfigurazioa: konfigurazio komuneko kontaktu-zentroaren datuetarako sarbidea, agenteak, zerbitzu-taldeak, trebetasunak eta beste elementu batzuk barne.
- Erreduantzia-aukera (Contact Center-eko agenteak biziraupena duten luzapenekin lotuta badaude eta Contact Center-eko zerbitzuen tokiko ispilugunea badago)

## Operadore lanpostua

Zerbitzu honek deiak ordenagailuan instalatutako aplikazio batetik kudeatzeko eta banatzeko aukera ematen du. Ezaugarri nagusi hauek ditu:

- Telefono-aurkibidea (orokorra eta erakundearen arabera)
- Interfaze pertsonalizagarria (koloreak, atalaseak, sarbide zuzenak...)
- Teklatu-lasterbideak
- Deiak eta beste eragiketa batzuk teklatuaren edo saguaren bidez egitea
- Sarrerako deiei buruzko informazio zehatza
- Plataformaren luzapenen egoerari buruzko informazioa
- Ilarak bistaratzea
- Txostenak denbora errealean eta historikoak

## Telefonia sare publikorako sarbidea

### ❖ Telefonia finkoa

Zerbitzu honek aukera ematen du telefoniako sare publikora interkonektatzeko. Ezaugarri nagusi hauek ditu:

- Linea analogoa (RTB): markazio multifrekuentzia, deia zain, hiruko deia, desbideraketak,...
- RDSI oinarritutako sarbidea: numerazio anizkoitza, sarrerako dei eta guzti, deia zain, desbideraketak,...
- RDSI lehen mailako sarbidea: numerazio anizkoitza, sarrerako dei eta guzti, deia zain, desbideraketak,...
- NGN sarbidea (SIP Trunk): numerazio anizkotza sarrerako markaketa zuzenarekin, codecs G.711a, G729a, G729ab, T.38,.
- DDI zenbaki zuzena: RDSI eta NGN sarbideetarako zenbaki zuzena
- Hartzaileak ordaintzekoaren zenbakia (900 – 800)
- Ordainketa partekatutakoaren zenbakia (901)
- Ordainketa partekatutakoaren zenbakia (902)
- 0xy zenbakia
- 1xy zenbakia

Biziraupen-ekipamendua eta telefoniako sare publikorako interkonektzioa duten erakundeek, nahi izanez gero, aurreko zerbitzuek eskura ditzakete bigarren operadore batekin erreduantzia handiagoa izateko.

## Tarifak

Tarifak hemen eguneratzen dira: [I. Eranskina: Enkarguetan aplikatu beharreko indarrean dauden tarifak](#)

ZERBITZU-FITXA	
<b>Zerbitzuaren izena</b> Komunikazio mugikorrak	<b>Zerbitzu-lerroa</b> Azpiegiturak
<b>Arduraduna</b> Fernando Ruiz Marroquín fernando-ruiz@ejie.eus	<b>Bezeroak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Informatika eta Telekomunikazioen Zuzendaritza</li> <li>- Eusko Jaurlaritzako sailak</li> <li>- Erakunde autonomoak</li> <li>- Erakunde publikoak</li> <li>- Sozietate publikoak.</li> </ul>
<b>Definizioa</b> Zerbitzu konekin bermatu nahi da kudeatzen diren komunikazio mugikor guztien beharrak aseko direla eta seguruak izango direla (ahotsa, datuak, SMS, MMS, RCS, RPV, EMM, LBS, M2M etab.) EAEko sektore-sare, organismo eta erakunde publikoentzat.	
<b>Ezaugarriak</b> Zerbitzuak honako ezaugarri orokor hauek ditu: <ul style="list-style-type: none"> <li>- EAEko sektore-sare, organismo eta erakunde publikoek komunikazio mugikorren arloan dituzten beharrak asetzeko zerbitzuak eskaintzen dira (ahotsa, datuak, SMS, MMS, RCS, RPV, EMM, LBS, M2M, IoT etab.).</li> <li>- Interkonexioa, dauden ahots-kommutazio pribatuen azpiegiturekin; horietatik bideratuko da telefono finko korporatiboetatik eta horietarako trafikoa (hornitzaileak zerbitzu hau emateko baliatuko duen sare-azpiegiturak lurreko azpiegiturretan oinarritutako bitarteko fisikoak izan behar ditu nahitaez).</li> <li>- Sektore-sarearekin edo erakundeekin datuak transmititzeko interkonexio pribatua.</li> <li>- Negozio-beharretara egokitutako kalitatea eta gaitasuna ematea, erakundearen eraikinetan.</li> <li>- Mota askotako terminal mugikorrak hornitzea (erabiltzailea, bulego mugikorra...), lagapen- eta erosketa-modalitatean.</li> <li>- Terminal mugikorrek erlazionatutako osagarriak hornitzea.</li> <li>- Maila guztiekin erlazionatutako kudeaketa.</li> <li>- Segurtasuna kudeatzea, produkzioko gailuak, erabilera hedatuko aplikazio korporatiboak eta publikoak, erabiltzailearen lan-prozedurak, analisi forentse estatistikoa eta zaintza aktiboko prozedurak kontuan hartuta.</li> </ul>	
<b>Zerbitzu-tipologiak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sare publikoko interkonexio-zerbitzuak</li> <li>- Sare pribatuko interkonexio-zerbitzuak</li> <li>- RPV interkonexio-zerbitzuak</li> <li>- Oinarritzko zerbitzuak</li> <li>- Zerbitzu osagarriak</li> <li>- Telefonogune birtuala</li> <li>- Lokalizazioan oinarritutako zerbitzuak</li> <li>- Trafikoa lehenestea</li> <li>- Satelite bidezko komunikazioak</li> <li>- Zerbitzu neurtuak</li> <li>- Terminal mugikorrak</li> <li>- RPV mugikorraren kudeaketa</li> <li>- EMM kudeaketa</li> </ul>	
<b>Tarifak</b> Tarifak hemen eguneratzen dira: <a href="#">I. Eranskina: Enkarguetan aplikatu beharreko indarreen dauden tarifak</a>	



ZERBITZU-FITXA	
<b>Zerbitzuaren izena</b> Nabigazioa	<b>Zerbitzu-lerroa</b> Komunikazioak
<b>Arduraduna</b> Josu Bagazgoitia j-bagazgoitiasaez@ejie.eus	<b>Bezeroak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Informatika eta Telekomunikazioen Zuzendaritza</li> <li>- Eusko Jauriaritzako sailak</li> <li>- Erakunde autonomoak</li> <li>- Erakunde publikoak</li> <li>- Sozietate publikoak.</li> </ul>
<b>Definizioa</b> Zerbitzu honek web-nabigazioko zerbitzu bat eskaintzen die erakundeei, kontratatutako zerbitzuaren tipologiaren arabera honako funtzionalitate hauekin: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erakundearen barruan dauden pertsona, ekipo eta aplikazioentzako Internetarako sarbide segurua.</li> <li>- Internetarako sarbide segurua erakundetik kanpo dauden pertsonentzat.</li> <li>- Web nabigazioa iragaztea, URLen ospean eta kategorizazioan oinarrituta.</li> <li>- Birusen aurkako teknologia tradizionalen oinarritutako mehatxuen oinarritzko detekzioa.</li> <li>- Mehatxuen detekzio aurreratua sandboxing teknologian oinarrituta.</li> </ul>	
<b>Ezaugarriak</b> Zerbitzua diseinuaren ezaugarri inplizitu hauekin eskaintzen da: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sendoa: erabilgarritasun handiarekin eskaintako zerbitzua eta DR.</li> <li>- Malgua eta eskalagarria: beharretara egokitutako konfigurazio malguak hartzeko eta eskariaren araberako hazkundera izateko prestatutako zerbitzua.</li> </ul>	
<b>Zerbitzu-tipologiak</b> Web nabigazio zerbitzua zerbitzu-tipologia hauen arabera emango da: <ul style="list-style-type: none"> <li>- 1. profila: oinarritzko nabigazio segurua</li> <li>- 2. profila: oinarritzko nabigazio segurua ekipo eramangarrietarako</li> <li>- 3. profila: nabigazio seguru aurreratua ekipo eramangarrietarako</li> </ul> <p>Jarraian, zerbitzu-tipologiaren berariazko ezaugarriak zehazten dira.</p> <p><b>1. profila: oinarritzko nabigazio segurua</b>            Web-nabigazioko zerbitzu bat da; horren bidez, erabiltzaileek oinarritzko segurtasun-mailarekin nabigatu dezakete. Erakundeko PC guztiei lehenetsita aplikatuko zaien profila da.</p> <p><b>Ezaugarriak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- URLak kategorietan oinarrituta iragaztea, segurtasun-kategoria espezifikoak barne</li> <li>- URLak iragaztea, ospean oinarrituta</li> <li>- HTTPS nabigazio zifratua aztertzeke SSL irekiera selektiboa</li> <li>- Fitxategiak tipologiaren eta kategorizazioaren arabera iragaztea</li> <li>- Politika malguak IPetan, erabiltzaileetan, taldeetan eta abarretan oinarrituta</li> <li>- Edukiaren analisisa denbora errealean</li> <li>- Birusen aurkako analisisa (motor bikoitzeko antibirusa, ospe handiko informazioa duen malware ezagunerako)</li> <li>- Erabilera estandarreko eta pertsonalizatzeko moduko txostenak</li> </ul> <p><b>Aurrebaldintzak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erakundearen sarera konektatutako gailu bat edukitzea, eta Internetera konektatzeko erabilitako softwareak proxy esplizitua onartzea. Web nabigatzaile guztiek proxy esplizitua onartzen dute, baina proxy erabiltzeko aukerarik ematen ez duten software aplikazio batzuk egon daitezke.</li> <li>- Aurreko baldintza betetzen ez duten gailuen kasuan, zerbitzurako sarbidearen bideragarritasuna aztertuko litzateke proxy gardenaren alternatiba erabiliz.</li> </ul>	

**2. profila: oinarrizko nabigazio segurua ekipo eramangarrietarako**

Web-nabigazioko zerbitzu bati dagokio. Zerbitzu horretan, erabiltzaileek oinarrizko segurtasun-mailarekin nabigatu dezakete; eta, gainera, nabigazio-zerbitzurako sarbidea izan dezakete lantokitik kanpo daudenean sare korporatibo baterako (roaming) konexiorik gabe, segurtasun-elementu zentralizatuen bidez.

Ekipo eramangarria duten eta erakundeaz kanpoko sare baten bidez nabigatzeko erabiltzen duten erabiltzaileei zuzendutako profila da (etxe partikularretatik egindako konexioak, adibidez).

**Ezaugarriak**

URLak kategorietan oinarrituta iragaztea, segurtasun-kategoria espezifikoak barne

- URLak iragaztea, ospean oinarrituta
- HTTPS nabigazio zifratua aztertzeke SSL irekiera selektiboa
- Fitxategiak tipologiaren eta kategorizazioaren arabera iragaztea
- Politika malguak IPetan, erabiltzaileetan, taldeetan eta abarretan oinarrituta
- Edukiaren analisia denbora errealean
- Birusen aurkako analisia (motor bikoitzeko antibirusa, ospe handiko informazioa duen malware ezagunerako)
- Erabilera estandarreko eta pertsonalizatzeko moduko txostenak

**Aurrebaldintzak**

- Erakundearen sarera konektatutako gailu bat edukitzea, eta Internetera konektatzeko erabilitako softwareak proxy esplizitua onartzea. Web nabigatzaile guztiek proxy esplizitua onartzen dute, baina proxy erabiltzeko aukerarik ematen ez duten software aplikazio batzuk egon daitezke.
- Aurreko baldintza betetzen ez duten gailuen kasuan, zerbitzurako sarbidearen bideragarritasuna aztertuko litzateke proxy gardenaren alternatiba erabiliz.
- EJIk emandako software espezifiko bat (agentea) edukitzea, erakundeak ekipoetan instalatuko duena bere estandarrei eta tresnei jarraituz.
- Aipatutako softwarea honako ezaugarri hauek dituen gailu batean instalatuko da:
  - Windows Server 2008 R2 edo goragokoa
  - Windows 7 edo goragokoa
  - MacOS 10.12 (Sierra) edo goragokoa
  - Agente softwarea ez dago eskuragarri gailu mugikorretarako (iOS, Android)

**3. profila: nabigazio seguru aurreratua ekipo eramangarrietarako**

Web-nabigazioko zerbitzu bati dagokio. Zerbitzu horretan, erabiltzaileek segurtasun-maila aurreratuarekin nabigatu dezakete; eta, gainera, nabigazio-zerbitzurako sarbidea izan dezakete beren lantokitik kanpo daudenean, sare korporatibo (roaming) baterako konexiorik gabe.

Ekipo eramangarria duten eta segurtasun-premia bereziak dituzten erabiltzaileei zuzendutako profila da (VIP profilak edo antzekoak).

**Ezaugarriak**

- URLak kategorietan oinarrituta iragaztea, segurtasun-kategoria espezifikoak barne.
- URLak iragaztea, ospean oinarrituta
- HTTPS nabigazio zifratua aztertzeke SSL irekiera selektiboa
- Fitxategiak tipologiaren eta kategorizazioaren arabera iragaztea
- Politika malguak IPetan, erabiltzaileetan, taldeetan eta abarretan oinarrituta
- Edukiaren analisia denbora errealean
- Birusen aurkako analisia (motor bikoitzeko antibirusa, ospe handiko informazioa duen malware ezagunerako)
- Erabilera estandarreko eta pertsonalizatzeko moduko txostenak
- Birusen aurkako analisia (malware aurreratuko soluzioa analisi heuristikoko gaitasunen bidez eta portaeraren araberako analisia, zero eguneko malware-erasoak prebenitzeko)
- Sandboxing analisia

**Aurrebaldintzak**

- Erakundearen sarera konektatutako gailu bat edukitzea, eta Internetera konektatzeko erabilitako softwareak proxy esplizitua onartzea. Web nabigatzaile guztiek proxy esplizitua onartzen dute, baina proxy erabiltzeko aukerarik ematen ez duten software aplikazio batzuk egon daitezke.
- Aurreko baldintza betetzen ez duten gailuen kasuan, zerbitzurako sarbidearen bideragarritasuna aztertuko litzateke proxy gardenaren alternatiba erabiliz.
- EJIk emandako software espezifiko bat (agentea) edukitzea, erakundeak ekipoetan instalatuko duena bere estandarrei eta tresnei jarraituz.
- Aipatutako softwarea honako ezaugarri hauek dituen gailu batean instalatuko da:
  - Windows Server 2008 R2 edo goragokoa
  - Windows 7 edo goragokoa

- MacOS 10.12 (Sierra) edo goragokoa
- Agente softwarea ez dago eskuragarri gailu mugikorretarako (iOS, Android)

#### **Tarifak**

Tarifak hemen eguneratzen dira: [I. Eranskina: Enkarguetan aplikatu beharreko indarreen dauden tarifak](#)

ZERBITZU-FITXA	
<b>Zerbitzuaren izena</b> Bideokonferentzia zerbitzua	<b>Zerbitzu-lerroa</b> Komunikazioak
<b>Arduraduna</b> Josu Bagazgoitia j-bagazgoitiasaez@ejie.eus	<b>Bezeroak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Informatika eta Telekomunikazioen Zuzendaritza</li> <li>- Eusko Jauriaritzako sailak</li> <li>- Erakunde autonomoak</li> <li>- Erakunde publikoak</li> <li>- Sozietate publikoak.</li> </ul>
<b>Deskribapena</b> Bideokonferentziako eta bideo-kudeaketako plataforma honi esker, zerbitzura biltzen diren erakundeek prestazio hauek eskuratu ahal izango dituzte: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bideokonferentziak egitea erakunde bereko, erakunde desberdinetako eta kanpoko pertsonen artean. Erabiltzaile horiek bideokonferentziara batu daitezke baldintzak betetzen dituen edozein gailu erabiliz (PC, mugikorra, tableta, IP telefonoa, ohiko telefonoa edo ekipamendu espezifikoak duen gela).</li> <li>- Bideokonferentzien bideoa eta audioa grabatzea</li> <li>- Zuzenean igorritako edo eskariaren arabera kontsumitutako edukiak bistaratzeko</li> <li>- Ikus-entzunezko edukien edizio aurreratua</li> </ul>	
<b>Ezaugarriak</b> Zerbitzuaren erabilera-kasu batzuk honako hauek izan daitezke: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aldizkako jarraipen-bilera bat egitea, erakundearen hainbat egoitza tartean direla</li> <li>- Dokumentu baten gainean lan egitea hainbat kokalekutatik</li> <li>- Bideokonferentzia-saio bat grabatzea, ondoren ikusteko (prestakuntza- edo lege-helburuetarako)</li> <li>- Prestakuntza-ikastaro bat zuzenean emititzea</li> <li>- Eskariaren arabera kontsumi daitezkeen ikastaroak eta bestelako edukiak erabiltzaileen eskura jartzea</li> </ul> Zerbitzua diseinatzeko garaian, alderdi hauek hartu dira kontuan: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erabiltzaileak dagoeneko baduen eta etorkizunean izan dezakeen teknologiarekin ahalik eta elkarreragingarritasun handiena izatea</li> <li>- Jarraitutasuna eta jasangarritasuna bermatzen duten estandarretan oinarritutako soluzioa izatea</li> <li>- Erabilerraza izatea</li> </ul> Eskalagarritasuna; zerbitzua prest utziko da, eskariaren arabera haz dadin	
<b>Zerbitzu-tipologiak</b> <b>Bideokonferentzia eta bideo-kudeaketa</b> Zerbitzu-tipologia horri esker, bideokonferentziak ezar daitezke erakunde bereko pertsonen artean eta zerbitzuari atxikitako hainbat erakundetako pertsonen artean. Saiotetan erakundeetatik kanpoko pertsonak ere sar daitezke. Erabiltzaileak bideokonferentziara batu daitezke baldintzak betetzen dituen edozein gailu erabiliz (PC, mugikorra, tableta, IP telefonoa, ohiko telefonoa edo ekipamendu espezifikoak duen gela). Grabazio-funtzionalitatearen bidez bideo-plataforma tratatzen ari den bideokonferentzia baten bideoa hartu ahal izango da, baita erabiltzaileak sortutako beste eduki batzuk ere (adibidez, webcam baten bideo-irudia). Bestalde, bideo-edukien kudeatzaileak ikus-entzunezko edukiak antolatzeke eta editatzeko aukera emango du. Edukiak bistaratzeari dagokionez, edukiak erreproduzitu ahal izango dira eskariaren arabera erreproduzioaren edo zuzeneko emisioaren modalitate hauen arabera. <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bideokonferentziarekin lotutakoak:                             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bideokonferentzia puntutik puntura eta puntutik puntu anitzera</li> </ul> </li> </ul>	

- Saioan estandarrak betetzen dituen edozein gailu sartzea
- Microsofteko lankidetzeta-tresna korporatiboekin (Skype, Lync) integratzea
- Microsofteko posta-plataforma korporatiboekin (Exchange) integratzea
- Telefonía korporatiboko plataformekin integratzea
- Bilera-areto birtualak sortzea
- Bileren programazioa
- Markaketa arintzeko direktorioak
- Saioan zehar edukiak partekatzea
- Bideo-kalitatea: 1080pHD
- Dauden bideokonferentzia-soluzioekin integratzeko aukera.
- Zerbitzurako sarbidean segurtasun-politikak aplikatzeko aukera
- Grabazioarekin lotutakoak:
  - Kredentzial korporatiboen bidez grabaziorako sarbidea
  - Puntutik puntura eta puntutik puntu anitzerako bideokonferentziak grabatzea
  - Grabazioa kalitate honetan: 1080p/30fps
  - Grabazio birtualeko aretoak sortzea
  - Estandar nagusien euskarria (WMV, MP4)
  - Bideo-irudia honako hauetatik:
    - Aretoko ekipoetatik, H.323/SIP estandarren pean
    - Microsoft plataformetatik (Lync edo Skype for Business)
    - WebRTC-tik
- Bideoa kudeatzeko atariarekin lotutakoak:
  - Edukiak kudeatzeko atarirako sarbidea, kredentzial korporatibo bidez
  - Edukiak igotzeko, deskargatzeko edo editatzeko web interfazea
  - Ikus-entzunezko edukiak sortzaile edo gako-hitzen arabera bilatzea
  - Bideoen iruzkinak baloratzea eta sartzea
  - Erabiltzailearen rolak sortzea (administratzailea, irakurketa bakarrik, balidatzailea, etab.)
  - Grabazioak kanal pribatu edo publikoetan argitaratzea eta modu partekatuan erabiltzea
  - Edukiak eskuratzeko politikak konfiguratzeko
  - Edukietara sartzeko estekak posta elektronikoz bidaltzea
  - Bideoak etiketatzea/kategorizatzea
  - Ikus-entzunezko edukiarekin lotutako dokumentu erantsiak sortzea, bideo horren laguntza edo osagarri gisa
  - Bideo-formatu nagusiekiko (WMV, MP4) bateragarritasuna
  - HTML5 eta Flash-ekin bateragarria den erreproduzitaile integratua
  - Edukien oinarritzko edizioa (azpigituluak, ur-markak...)
  - Edukien edizio aurreratua (aurreko eta atzeko ebakina, zatiketa, gainjartzea)
  - Ekitaldiak antolatzea
  - Bideoen baliozkotasun-data ezartzeko aukera
  - Edukiak zifratzea
  - Hirugarrenen aplikazioekin integratzeko aukera
  - Unicast eta multicast streaming-a
  - Erreproduktzioa 1080p kalitatean
  - Edukien backup-a

#### Tarifak

Tarifak hemen eguneratzen dira: [I. Eranskina: Enkarguetan aplikatu beharreko indarrean dauden tarifak](#)

ZERBITZU-FITXA	
<b>Zerbitzuaren izena</b> LAN eta Wifi konektibitatearen kudeaketa	<b>Zerbitzu-lerroa</b> Komunikazioak
<b>Arduraduna</b> Josu Bagazgoitia j-bagazgoitiasaez@ejie.eus	<b>Bezeroak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Informatika eta Telekomunikazioen Zuzendaritza</li> <li>- Eusko Jauriaritzako sailak</li> <li>- Erakunde autonomoak</li> <li>- Erakunde publikoak</li> <li>- Sozietate publikoak.</li> </ul>
<b>Deskribapena</b> Lan eta WIFI konektibitatea kudeatzeko zerbitzuaren helburua da erakundeetan dagoen azpiegitura egokitzea, bai eta beharrezkoa den azpiegitura berria hornitzea ere. Gainera, zerbitzuak erakundeek eskatzen duten Interneterako sarbidea ere barne hartzen du.	
<b>Ezaugarriak</b> LAN eta Wifi konektibitatea kudeatzeko zerbitzuak honako hauek jasotzen ditu: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erakundeen eraikin eta egoitzetan dagoen azpiegitura egokitzea.</li> <li>- Erakundeen egoitzetan/eraikinetan LAN eta WLAN zerbitzua hornitu eta instalatzea.</li> <li>- Erakundeen sarean egoitzak integratzeko azpiegitura-lanak egitea.</li> <li>- Neurrirako azpiegitura-proiektuak egitea.</li> <li>- Erakundeei Interneterako sarbidea ematea.</li> </ul>	
<b>Zerbitzu-tipologiak</b> <b>Azpiegitura pasiboa/LAN/Wifi</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zerbitzu honek eraikineko azpiegitura pasiboa hedatzea aurreikusten du —halakotzat hartzen dira kableatu egituratuko instalazioetarako (bai zuntz optikoa, bai UTP), kableatuetarako, rack-ak hornitzeko eta instalatzeko eta abarretarako beharrezko hornidurak eta zerbitzuak—; bai eta LAN sare kableatuak eta kableatu gabekoak eraikitzeke (WIFI irtenbideak) eta horiek zerbitzuan jartzea bermatzeko beharrezkoak diren sare-elektronika eta gainerako hornidurak eta zerbitzuak hedatzea ere. Horren barruan sartzen dira switch-ak, antenak eta WIFI kontrolagailuak jartzea, estaldura-probak egitea, eta zerbitzu-probak egitea definituko diren sare lokalak osatzeko.</li> </ul> <b>Egoitzako tokiko Interneterako sarbidea</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zerbitzuaren xedea da tokiko Interneterako sarbidea ematea hala eskatzen duten eraikinetan</li> </ul>	
<b>Tarifak</b> Tarifak hemen eguneratzen dira: <a href="#">I. Eranskina: Enkarguetan aplikatu beharreko indarrean dauden tarifak</a>	

ZERBITZU-FITXA	
<b>Zerbitzuaren izena</b> Urruneko konexio segurua	<b>Zerbitzu-lerroa</b> Komunikazioak
<b>Arduraduna</b> Josu Bagazgoitia j-bagazgoitiasaez@ejie.eus	<b>Bezeroak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Informatika eta Telekomunikazioen Zuzendaritza</li> <li>- Eusko Jaurlaritzako sailak</li> <li>- Organismo autonomoak</li> <li>- Erakunde publikoak</li> <li>- Sozietate publikoak</li> </ul>
<b>Deskribapena</b> Zerbitzu honek urruneko konexio segurua eskaintzen du, eta urruneko sarbide segurua ahalbidetzen du entitateen sareetara sartzeko, Internet bidez, autentifikazioan eta zifratzean oinarrituta. Gaur egun, telelanaren gorakadarekin, zerbitzu honek segurtasun-estrategia bat eskaintzen die atxikitako entitateei.	
<b>Ezaugarriak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Datuen konfidentzialtasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna ematen ditu.</li> <li>- Sarerako sarbide espezifikoak ematen die, modu seguruan, baimendutako urruneko erabiltzaileei.</li> <li>- Faktore anitzeko autentifikazio-sistemekin integrazeko aukera ematen du.</li> <li>- Sarbide malgua (ACL motakoa), gutxieneko kudeaketarekin, profiletan oinarrituta (AD taldeak, adibidez) eta erabiltzailearen nortasun indibidualean oinarrituta.</li> <li>- Konexioen erregistroa eta ikuskaritza.</li> </ul>	
<b>Zerbitzu-tipologiak</b> <b>P1 urruneko sarbidea (VPN-SSL)</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskaintza hau instalazioetan bertan dauden azken erabiltzaileentzat da, baldin eta urruneko konexio segurua ezarri behar badute (ingelesez VPN – sare pribatu birtuala) entitatearen barne-zerbitzarietan biltegitatuta dauden aplikazioetara eta informazioetara sartzeko.</li> </ul> <b>P3 urruneko sarbidea (VPN Site2Site)</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskaintza horren bidez, beharrezkoak diren konexioak egiten dira entitatearen tenant-ean. Zerbitzu inplizitua da tenantaren barruan, hosting zerbitzuari lotua.</li> </ul>	
<b>Tarifak</b> Hemen eguneratzen dira tarifak: <a href="#">I. eranskina: Enkarguetan aplikatu beharreko tarifak, indarrean daudenak</a>	

## 5.3 Azpiegiturak

ZERBITZU-FITXA	
<b>Zerbitzuaren izena</b> Housing-a	<b>Zerbitzu-lerroa</b> Azpiegiturak
<b>Arduraduna</b> Eneko Saez de Asteasu e-asteasu@ejie.eus	<b>Bezeroak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Informatika eta Telekomunikazioen Zuzendaritza</li> <li>- Eusko Jaurlaritzako sailak</li> <li>- Erakunde autonomoak</li> <li>- Erakunde publikoak</li> <li>- Sozietate publikoak.</li> </ul>
<b>Definizioa</b> Zerbitzuak espazio fisikoa eta erraztasunak eskaintzen ditu bezeroaren berezko azpiegitura-elementuak EJI Eren DPZren barruan sartzeko. Espazio fisikoaz gain, konexio elektrikoak, klimatizazioa, sarera konektatzea, muntaketa eta desinstalazioa, birziklapena eta urruneko eskuen aukerak eta backup zinten zaintza eskaintzen dira.	
<b>Ezaugarriak</b> Housing zerbitzuak helburu hauek bete nahi ditu: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bezeroaren azpiegitura hartzeko espazio fisikoa eskaintzea.</li> <li>- Potentzia elektriko eta klima egokiak ematea.</li> <li>- Suteak itzaltzeko sistema.</li> <li>- DPZ aretotik bereizitako komunikazio-hornitzailearen sarbideak.</li> <li>- Aretorako sarbideak kudeatzea. (Aurrez aurreko segurtasuna eta zaintza-kameren zirkuitu itxia)</li> <li>- Kableatu-zerbitzuak. (8x5)</li> <li>- Muntatzea eta desmuntatzea. (8x5)</li> <li>- Erretiratutako elementuak birziklatzea. (8x5)</li> <li>- Aukeran, komunikazioen konexioa, aukera gisa kontratatzen bada.</li> <li>- VPN aukerako konexioa, sistemetara kanpotik sartzeko, administratzeko.</li> <li>- Armairuak (babestuak edo babestu gabeak) hornitu eta instalatzea. (8x5)</li> <li>- Piezak stockean gordetzeko espazioa.</li> <li>- Urruneko begiak eta eskuak (24x7)</li> <li>- DPZ EJI Eren DPZra urruneko kokalekutik lekualdatzeko proiektua.</li> <li>- Ekipoetako alarmen egoeraren berrikuspen bisuala.</li> <li>- Backup zinten kudeaketa eta zaintza (24x7)</li> </ul>	
<b>Zerbitzu-tipologiak</b> Housing zerbitzuak ez du inolako zerbitzu-tipologiarik aurreikusten.	
<b>Tarifak</b> Tarifak hemen eguneratzen dira: <a href="#">I. Eranskina: Enkarguetan aplikatu beharreko indarrean dauden tarifak</a>	



ZERBITZU-FITXA	
<b>Zerbitzuaren izena</b> IaaS	<b>Zerbitzu-lerroa</b> Azpiegiturak
<b>Arduraduna</b> Javier Cela j-cela@ejie.eus	<b>Bezeroak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Informatika eta Telekomunikazioen Zuzendaritza</li> <li>- Eusko Jaurlaritzako sailak</li> <li>- Erakunde autonomoak</li> <li>- Erakunde publikoak</li> <li>- Sozietate publikoak.</li> </ul>
<b>Definizioa</b> <p>Zerbitzu honen bidez abiadura eta malgutasuna lehenetsiko dituen Informazio Teknologien eredu bat eskaini nahi da, hodeiko zerbitzua (Cloud IAAS) izango duen azpiegitura modalitatean.</p> <p>Elkarreragingarritasun hibridodun Cloud bat izango da, azpiegitura automatizatuan eta aplikazioen segmentazio seguruan oinarritua, Eusko Jaurlaritzari, erakunde autonomoei eta euskal sektore publikoko beste erakunde batzuei IT zerbitzuak emateko sortua. IaaS zerbitzua Cloud publikoen zerbitzuez hornitu ahal izango da modu gardenean, bezeroentzat.</p> <p>IaaS zerbitzua "Batera" konbergentziako Datacenter-en azpiegituraren gainean dago hedatuta. Bi egoitza (DPZ) dituen Datacenter bat da, erabilgarritasun handiko zerbitzu bat eskaintzea ahalbidetzen duena. Kontingentzia-egoera batean, zerbitzua bigarren mailako gunetik emango da, eta ez da beharrezkoa izango zerbitzua ematen den tokitik helbideratze publiko edo pribatua aldatzea, URLak aldatzea, bezeroak aldatzea etab.</p> <p>IaaS zerbitzua "Batera" konbergentziako Datacenter-en azpiegituraren gainean dago hedatuta. Bi egoitza (DPZ) dituen Datacenter bat da, erabilgarritasun handiko zerbitzu bat eskaintzea ahalbidetzen duena. Kontingentzia-egoera batean, zerbitzua bigarren mailako gunetik emango da, eta ez da beharrezkoa izango zerbitzua ematen den tokitik helbideratze publiko edo pribatua aldatzea, URLak aldatzea, bezeroak aldatzea etab.</p> <p>Gasteizko DPZ gune nagusia dela jotzen da, eta zama guztiak hartzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gune horretan erabilgarritasun handiko mekanismoak ezartzen dira ahalik eta geruzarik gehienetan (energia, klimatizazioa, azpiegitura, kableak, komunikazio-hornitzaileen sarbideak, middlewarea, aplikazioa etab.). Akats-puntu bakarrak saihesten dira.</li> <li>• Funtzionamendu normalean, hau da karga aktiboak dituen gune bakarra.</li> </ul> <p>Erandioko DPZ bigarren mailako gunea eta DRa (Disaster Recovery) da.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gune honetan, ezaugarri horiek dituzten makina birtualen stand-by sinkronizatuko erreplika bat dago.</li> <li>• Gune horretako azpiegiturak ez dute, oro har, HA-mekanismoak.</li> <li>• Segurtasun-kopien bigarren kopia bat gordetzeko ere erabiltzen da gunea.</li> </ul> <p>Bi guneen arteko interkonexioa operadorearen linea erredundatu dedikatuak dira. Gune bakoitzak bere konexio erredundatu propioa du bezero bakoitzaren sare korporatibora, eta horrek esan nahi du egoitza eta eraikinetarako sarbidea duela, bai eta DPZrakoa ere. Era berean, Internetarako sarbideak bi operadore desberdin ditu.</p>	
<b>Ezaugarriak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erabilgarritasun handiko mekanismoak (HA) eta ezbeharrak izanez gero berreskuratzekoak (DR).</li> <li>- Autozerbitzuko ataria, 1. eguneko (hedapena) eta 2. eguneko (administrazioa) operazio automatizatuekin.</li> <li>- Interkonexio zuzena dauden inguruneekin eta bezero bakoitzaren sarbide-sareekin, IP helbideratzea mantenduz.</li> <li>- Bezero-zerbitzuak Interneten edo sare pribatuan erakustea.</li> <li>- Segurtasun- eta mikrosegmentazio-eremuak.</li> <li>- Multi-tenant isolamendua bermaturik.</li> <li>- IT eragiketa, ITIL jardunbide egokien arabera.</li> </ul>	

### Zerbitzuaren tipologiak

**Makina birtualeko zerbitzua:** zenbaketa, biltegitratzea eta sareak eta erlazioatutako oinarrizko beste baliabide batzuk hornitzeko gaitasuna, zerbitzu hori kontratatzen duen bezeroak bere zerbitzari birtualak hedatzeko eta softwarea (sistema eragileak, plataformak eta aplikazioak) exekutatzeko aukera izan dezan. Bezeroak ez du azpiko cloud azpiegitura kudeatzen edo kontrolatzen; baina, autozerbitzuko atariaren (VRA) bidez, aurretik VRAREN bidez eta zati batean networkingeko osagaien gainean (adibidez, Firewall-ak) hedatu dituen zerbitzari birtual horien gainean hedatu dituen sistema eragileak, biltegitratzea eta aplikazioak kudeatu ditzake.

Zerbitzuaren irismenari buruzko gogoetak

- IaaS zerbitzua izango da Batera azpiegituratik eskaintzen diren zerbitzu guztien zerbitzari birtual guztiak (ez bakarrik IaaS zerbitzuko harpidetzetan esplizituki sartuta daudenak) kudeatzeko arduradun bakarra.
- EJI Eren katalogoko zerbitzu guztiak makina birtualak eta horien euskarria hornitzeko zerbitzu honetara inplizituki harpidetuta geratzen dira, zerbitzu honen ANS bereberekin.
- Zerbitzu honek erabilgarritasun-, jarraitutasun-, gaitasun- eta segurtasun-prozesuen bidez eskaintzen diren berme berberak zabalduko ditu makina birtualen bat kontsumitzen duten EJI Eren katalogoko zerbitzu guztietara.
- Zerbitzuaren kalitate-plan honetan agertzen diren zerbitzari birtualen eskaintza eta horien tarifak EJI Eren katalogoko beste edozein zerbitzuren edozein harpidetzatarako kostuak esleitzeko erabiliko dira.

### Zerbitzuaren eskaintza

Mota	Erabilera tipikoa	CPU	RAM	Biltegitr.	Backup	Erabilgarritasun maila
A2X / Y	A2#: Aplikazio kritiko estandarrak	2 – 16 vCPU	1 - 64 GB	A#X / A#Y: 20 - 1024 GB	Pertsonalizagarria, zehaztasunez:	Handia (DR babesa)
B2Y B3Y / Z	B2#: Produkzio estandarreko aplikazioak B3#: Aplikazio estandarrak, baliabide gutxi	2 – 16 vCPU	1 - 64 GB	B1X / B#Y / B3Z: 20 - 1024 GB	Egunerokoa A-I arte, hilabetera arteko atxikipenarekin Hilerokoa, urtebete arteko atxikipenarekin	Normala (HA+ babesa)
C3Y / Z	C3#: Garapen-inguruneak eta testing-a	2 – 16 vCPU (*C4 máx 2	1 - 64 GB	C 20 - 1024 GB	Urtekoa, 5 urtera arteko atxikipenarekin	Ez-produktiboa (HA- babesa)
NAS1 / NAS2	-	n/a	n/a	1 – 9999 GB	Pd	Handia/normala/Ez prod.
VOL1 / VOL2	-	n/a	n/a	1 – 1024 GB	Pd	Handia/normala/Ez prod.

#### Zerbitzariarentzako errendimendu-profilak

Maila	Euspena CPU	RAM euspena	Sarea (Tx)	Gain inskripzioa.
#2	< %5	< %3	0 drops	1:4
#3	< %15	< %6	0 drops	1:6

#### Biltegitratzeko errendimendu-profilak


Maila	Deskribapena	Erantzun denbora
##X	Azkar	< 5 msg.
##Y	Normala	< 20 msg.
##Z	Oinarrizkoa	< 30 msg.

### Tarifak

Tarifak hemen eguneratzen dira: [I. Eranskina: Enkarguetan aplikatu beharreko indarrean dauden tarifak](#)

ZERBITZU-FITXA	
<b>Zerbitzuaren izena</b> Backup Zaintza	<b>Zerbitzu-lerroa</b> Azpiegiturak
<b>Arduraduna</b> Javier Cela j-cela@ejie.eus	<b>Bezeroak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Informatika eta Telekomunikazioen Zuzendaritza</li> <li>- Eusko Jaurlaritzako sailak</li> <li>- Erakunde publikoak</li> <li>- Sozietate publikoak</li> <li>- Organismo autonomoak</li> </ul>
<b>Definizioa</b> <p>Segurtasun-kopien zerbitzu kudeatua, informazio-sistemak BATERAn dituzten bezero guztiak eta eskatzen duten bezero guztiak kontsumitzen dutena.</p> <p>Zerbitzu honek datuen babesa eskaintzen die bezeroei, egunero egiten baitira datuen segurtasun-kopiak. Babesteko erabil daiteke, baina baita hondatutako edo galdutako edozein datu lehengoratzeko ere.</p> <p>ZAINZA zerbitzuak aukera ematen die bezeroei kanpora ateratzeko segurtasun-kopien prozesua, hauek barne: kopietarako beharrezkoak diren gordailuak; backup-softwarea; egiaztapen-, administrazio- eta lehengoratzeko zerbitzuak, eta urruneko erreplika segurua beren segurtasun-kopietatik kokapen alternatiboetara edo hodeira, eskuragarri egongo direla eta legea beteko dela bermatzeko.</p>	
